

# IDATZ & MINTZ

## Literatur atalen sorta

# 52

Aurkibidea: Adolfo Arejita: *FRANTZIKOTAR SERMOILARI BIZKAITAR BAT*. **3**. Iratxe Ormatza Imatz: *GOITIZENAK*. **13**. Miren Agur Meabe: *UDAGOIENeko IRUDIAK*. **15**. Luigi Anselmi: *OLERKIAK*. **17**. Jabier Kalzakorta: *ANDRE EMILI BALADA EREDU DESEZAGUN BAT ETA AZKUEK BILDUA*. **19**. Amaia Iturbide: *SUGE LARRUA*. **28**. Charles Nodier: *NOLA EZABATU ZIREN PATUESAK FRANTZIAN*. **36**. Sebastian Garzia Trujillo: *GABON DUT ANUNTZIO BITORIANO GANDIAGAREN LIBURUAZ OHAR BATZUK*. **42**. *LIBURUAK*. **47**.


ARGITARATZAILEA  
Labayru Ikastegia  
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Adolfo Arejita  
Asier Astigarraga  
Jesus A. Etxezarraga  
Jabier Kalzakorta  
Miren Agur Meabe  
Lourdes Unzueta  
Andres Urrutia

ARDURADUNA  
Igone Etxebarria

DISEINU EDITORIALA  
Ikeder, S.L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2011ko abenduan, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeaz. Irudiak «850 ornamental designs», «Gaztelugach», «Big book of silhouettes» eta «Euskal Herriko algak 1» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA  
Aretxabaleta, 1-1ngoia  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa:  
labayru@labayru.org  
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Idazkuntza Politikako Saldunordokoa  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

bbk<sup>2</sup>

# Frantziskotar sermoilari bizkaitar bat

## *Euskerazko sermoigintzaren lehen oina- tzak*

Hizlaurko euskal literaturaren genero ugarienetariko bat, eta neurritz handien antzekoa, sermoigintza dogu duda barik, erretorika erlijiosoaren barrutian sartuko gendukena. Erlijinoa ardatz dauen euskerazko literatura ugaria da berez be, baina esparru zabal eta askotariko horren barruan, arlo berezia osotzen dabe sermoiek.

Trentoko kontzilioaren ondoren hasiko da ugaritzen gure artean euskerazko literatura erlijiosoa: dotrina-liburuak, errezu-liburuak eta beste. Eta sermoigintza be euskeraz ordutik aurrera hasiko da bidea urratzen, predikariek horretarako dohaia irabazi ahala. Gaztelaniaz, euskeraz baino goizago hasi zan sermoi eta misioigintza. Euskal Herrian bertan be Jeronimo Dutari (Iruña 1671), Pedro Antonio Catalayud (Tafalla, 1689).

Euskerazko sermoigintza Larramendiren ondorik garatuko da agirian eta sendoro Pirinioz behetian, batez be Agustin Kardaberaz eraginari esker, eta Nafarroa aldean baita Sebastian Mendibururen ekimenez be.

Aita Kardaberaz izan genduan XVIII. mendearen erdialde horretan herri misinoak abiarazo zituana, gehienbat Bizkaia-Gipuzkoetan, eta euron arrimura eta atzetxotik sartu ziran bide horretan, gitxi batzuk hasieran, eta askotzak geroagoan. Euskerazko sermoigintza eta misino-lanetan beste ordena batzuetakoak be urrun barik ibili ziran: frantziskotarrak, karmeldarrak, kaputxinoak eta dominikoak, besteak beste. Baina jesulagunak izan genduzan XVIII. mendean berrogeiko hamarkadan –berez askoz lehenagotik ziharduen herri misino eta sermoi jardunean– plan zehatz eta sendo bat finkatu ebenak herri misinoak eta sermoigintza bultzatzeko. Dotrinako gaien inguruko liburu atalkatuak idatzi eta inprimatu ebezan, ugari egin be, gure predikari finok, Larramendik berotu eban giroaren epelean. Liburu-liburuskok izango ziran ondoko sermoi jardunaren zimentarri eta gida nagusi. 1767an Karlos III.a erregeak jesulagunak erreinupeko lur guztietatik jaurtigi zituanean, orduko euskerazko literatura apala be, lehendik erdi umezurtz zana, guztizko zurtz geratu zan gure parajeetan.

Eta jesulagunek itxitako hutsune hori betetera beste ordena batzuk etorriko ziran, lehenagotik be bazihardenak, eta euron artean frantzizkotarrak agertu ziran gailen. Orduantxe lehentxoago hasiak ziran ordena batzuk misiolari kolegioak eratzen. Halan, Nafarroan, kaputxinoek Beran eratu eben euren kolegioa 1731an, han euren komentuari zeregin barri hori emonaz. Frantziskotarrek beste horrenbeste euren Oliteko komentuan 1745ean. Eta hurrengo urtean Zarautzen, gerora hain ospetsu bihurtuko zan misiolari kolegioa eratuz. Hauxe bihurtuko da euskal misiolarien habiarik indartsuena mendearen akaberaruntz eta XIX. mendearen lehen erdi osoan. Aita Palacios, Pedro A. Añibarro edo Juan Mateo Zabala izango ditu bere sermoelaririk ospetsuenak.

Baina gure uri eta herri nagusietan ziran komentuetako fraileek be zabaltzen eben inguruko herrietara euren eragin agiria. Halango komentuak ziran, besteak beste, Bilbo, Bermeo, Lekeitio, Markina edo Durangokoak Bizkaian. Loiola, Arantzazu, Donostia edo Tolosakoak Gipuzkoan. Gastetizkoak, Araban. Edota Iruñekoak Nafarroan.

Predikari izatea titulu bat zan, kargu bat, eta fraile batzuk baino ez eben izaten aukera hori. Orohar ondo eskolatuak eta ikasi handikoak, buruz argiak eta oratoriarako dohaia ebenak izendatzen ziran zeregin horretarako. Orohar idazkuntza dohaien jabe be baziran. Halanda ze, predikariak eurak ziran sermoiok idazten ebezanak; ez guztiek, halanda be, euretariko batzuk baino. Zein zan hain jaiegunetan esan beharreko gaia, edo misinoan zehar garandu beharrekoa, lehenengo beste iturri batzuetan irakurri eta ikasi –latinez edo gaztelaniaz,

Hegoaldean–, eta gero sermoia idatzi. Gaztelaniaz arazo apartekorik ez ohi euren predikariok, latinagaz batera ondo menderatzen eben eskola-hizkuntza zalako XVIII-XIX. mendeetan. Baina euskeraz idatzi orduan, sorrak eta lorrak predikari askorentzat, harako “Don Calixto”ren kasuan legez, Mogelek *Peru Abarka* berba-jardunen atzeko dialogo erantsian borobil deskribatzen deuskunez.

Euskeran jakiterik edo ikasirik ez ebenak, gaztelaniaz egin behar halabeharrez, eta arrazoi hori zala medio, euskal herri garbietan luzaro iraun eban sermoia erderaz egiteko usadioak. Euskerearen ezaguera, predikari-idazle batzuei esker joan zan hedatzen predikarien artean: batzuetan gramatika edo hiztegi bidez –Larramendirenak eskuren aldi horretan–, baina gehien-gehien eta batez be erlijinozko liburuen bitartez: Kardaberaz, Mendiburu, Olaetxea, Ubiillos... Geroago Mogel, Añibarro, Astarloa, Agirre Asteasuko... Mende biotako euskal idazle “klasiko” ezagunok bihurtuko ziran gida-eredu euskal predikariontzat. Ez gitxi, batez be misiolari-kolegioetan, batak beste-ari irakasten eutsienak; euskeran ikasiek landu barik eukienai. Baina edozelan be, sermoi-idazle on kasuan sekulako garrantzia eukan nork bere etxetik ekarren euskera-moduak, eta batzuen kasuan, euskalzaleen kasuan, misinoaldietan herri euskaldunetan hitzun zeheakandik ikasten eben herri berbeteak.

### *Arantzazuko eskuizkribu anonimoa*

Sermoi-liburu batzuk bere aldi argitaratu izan baziran be, abade jaun eta fraile predikarien lana arintzeko, beste asko,

gehienak ez esateko, eskuizkribu lez heldu dira gugana, sermoi-pleguak gehienetan, plegu-bilduma josiak beste batzuetan, eta liburu modura atonduak beste batzuetan. Frantziskotarren artxiboetan datzazan sermoi-plegu eskuizkribuzkoak –lehen komentu askotan, Tolosan; Bermeon, Bilbon..., gaur Arantzazukoan eta Zarauzkoan– katalogatuak izan ziran orain urte batzuk, eta txukun eta zehero argitaratu izan dira liburu eder baten.<sup>1</sup>

Taiu honetakoa da Arantzazuko frantziskotarren artxiboan datzan sermoi-liburu bat, orri-pleguak alkarren ondoan baturik eta josirik dituana, eta narru-azalaz kanpotik batua. Arantzazun eta frantziskotarren artxiboetan diran eskuizkribuzko sermoi-bildumen artean interesgarriena, neure eretxian, P. Añibarro eta J.M. Zabalarenak albora itxita. Egilea zein dan be ez dakigu, eta grafiatik be ezin atera izan dogu. Uxala egunen baten norbaitek argitu baleigu. Zein euskalkitakoa dan ez da dudarik, bizkai euskeraz idatzirik baitago. Ez da Gipuzkoako bizkaiera eremukoa, hori be argi dago. Bizkai-Bizkaikoa izan behar dau, nonbaiten be –Arabako lautadako Bizkai ertzekoa be bai berez, baina gatxago da hori sinestea–. Esan danez, bizkaieraz idatzirik dagoz sermoiok, hizkera ederrean onduak gainera. Esku berak idatziak ditugu danak; eta buru berak eiho eta onduak, gehituko neuke. Kalidade oneko paperean eta kalidade oneko tintaz idatziak dira. Idazlea euskera onaren jabe da, ez da idazle hasi barria, euskeraz jente aurrean berbetan eta berbara ekarri beharrekoa jagiro idazten trebatua eta ekandua baino. Sermoi-entzule herritar kristinau zeheak izango baditu be, hizkera landua eta sintaxi konplexukoa darabil. Zein da, hizkerak

berak be, adierazo gura dauen mezuaren astuntasun beretsua behar baleu lez. Latinezko zitak be berbakizunaren garrantzia handitzera datoz. Predikari ikasia eta eskola handikoa, itxura guztien arabera, eta zehatza eta txukuna, ez bakarrik azalpen-emotean, baita grafian be: borobila eta zabartasun bakoa.

Gatozan sermoi-liburuaren ezaugarrietara. Guztira hamaika sermoi dira bilduma osotzen dabenak, baina hamaika sermoiok 306 orrialderaino beteten ditue. Halanda ze, luzeak eta horniduak dira sermoiok. Bakotxak bere izenburu propioa dauka, euskeraz, eta latinezko azpititulua, Bibliaren *Vulgata* testutik hauturiko atala, bakotxean darabilen gaiari ondo joakona. Narru-azalaren barruko aldetik sermoitegi osoaren aurkibidea, beste esku batek gerorago idatzi eta erantsia, seguruenik sermoi-bildumari narru-azala ipini izan jakonean: “Indice de los sermones que se contienen en este tomo. [1] *Pecatu mortalaren ganian*. Pag. 1. [2] *Eztala luzatu biar penitencia eguitia*. 29. [3] *Memento icaragarrija ceinetatic daguan eseguita betibeticua edo eternidadia*. 62. [4] *Arimiaren nobletazuna eta celan guizonac desprecietan daben*. 92. [5] *Escandaluaren contra*. 118. [6] *Erijotziaren ganian*. 145. [7] *Juicijo bacocharena edo particularra*. 171. [8] *Guztijen juicijua*. 198. [9] *Inpernubarena*. 228. [10] *Glorijarena*. 254. [11] *Eternidadiaarena, Beticotazuna*. 282.”

Sermoi-liburu hau Tolosako frantziskotarren komentuan gorde izan da; hango siluak daroaz lehenengo orrian eta aurreko aurkibide-orrian. Gaur egun Arantzazuko komentuko artxiboan datza. Kandido Zubizarreta (1912-2005) liburuzain argia izan zan orain dala aspaldi lehenengo erakutsi

eta berau aztertze bidea erraztu eustana. Ondo ekian Aita Kandidok, historiagile bikaina eta bibliotekario parabagea ezeze, eleiz eta dotrina gaietan be, jakituna eta gizon aurreratua zalako. Eskuzabala eta ekiana erakustekoa, bestalde; liburuzainetan nekez idoroten dan dohaia, dana esateko.

Izkribuaren edukari, hizkereari eta idazkereari jaramoten badeutsagu, XIX. mendekoa dala ziurta daiteke huts handi barik, eta itxura baten, ez bigarren edo hirugarren hamarkadea baino arinagokoa. Berandutasun adierazgarri gisa, *baako* ezeztapen atzizkia darabil adjektiboetan, *baga* edo *bagako* barik: *azkenbakiak* barik, *azkenbaakuak*. Daragoion eduki edo gaitegiari buruz, eta gai-banaketari jagokonez, Garizumako misinoetan aste bian zehar jarraiko sermoietan garatzen ziran gaiei jagokela sines daiteke. Juan Mateo Zabalak eta honegaz batera hara-hona sermoiginen ibiltan ziranen plugu-izkribuetan garantzen diran gaien ideidekoak dira liburu honetakoak be, eta aldian be bata besteagandik urrun ez dabilzala ezagun da.

Hizkeran be bada ezaugarri bat, Juan Mateoren eskola bereko edo hurreko egiten dauena: zenbait kontzeptu adierazoteko euskal hitzak era alternatiboan eskeintzea; hitz bakarra emon beharrean, bi (edo batzuetan hiru), sinonimoak edo esanguraz hurrekoak, gainetxoan edo aldamenean idatzita; sermoilariak horretara bata edo bestea erabili ahal leiala herri edo prediku-lekuaren arabera, edo beste barik hizkera bariedadea jagoiteko. Halan, behean eskeintzen ditugun sermoi-ataletan: *destinauta* / *apartauta*, *señalauta* (1). Hitz jakin batzuetan be agiri dabe antzekotasuna: *kobru emon* (2) ‘bete, kumpulidu’ aditz lokuzinoa; *baia* juntagailu aur-

kariaren sartaldeko aldaera, berbarako. Lexikoaren aldetik bizkaiera erdialdekoetik hurrago dirudi, ekialdekoetik baino.

Euskeraren morfologia eredu, ostera, ez dator Añibarro eta Zabalaren erdi edo sartaldekoaz bat; bai ostera, Markina eta Durango aldeko Mogeldar-Astarloatarrei ertz-ertzetik darraiola. Idazlea zein dan jakin barik, ez da erraza zein parajetakoa dan be asmatzen. Ezin ziur jakin daiteke, konparagarri fidagarririk eskura ez dogun bitartean.

Lexikografia da azken baten idazlearen jatorriaz aztarrenen bat emon leiguna. Gogoan izan behar da, sermoilariok euron berbetea eta euron jatorrizko herrietako erregistroa ebezala erreferentzia nagusi. Eta darabilezan berba edo aldaera berezien bidez jo daiteke seguruen, idazlea nondikoa dan. Izan be, badira hitz edo hitz-aldaera batzuk, deigarri begitandu jakuzanak euren itxureagaitik; edo eremu urrikoak izan edo leku jakin batzuetan nagusiro erabiliak diralako, edo bereziak diralako beste barik. Horreetarikoak dira honango batzuk: *alemanija* (5) darabil, ‘animalia’ esateko, Frai Bartolomek edo Oñati aldean Izagirrek lekukotu legetxe; *apukei* adb. (4), ‘apika, agian’ esangurakoa, Azkuek Arabakotzat dakarrena; *txitar* (1), ‘txingarra’ adierazoteko, Otxandio-Ubide aldean behintzat lekukotua; *pristija*, ‘piztia’, Azkuek Otxandio ingurukotzat jaso dauena; *anra*, ‘andra’, Pedro Astarloak darabilen modu-moduan; *agindupeian* (1), *peian* bizkaiera ekialdeko aldaeraduna.

Euskera ziur, aberats eta ugariaren jabe da idazlea. Hautazko hitzen erabilera aitatu dogu gorago. Esanguraz hurrekoak edo sinonimoak txitean-pitean darabilz, eta ba-

tzuetan entzuleak leku diferenteetakoak izan daitekezala gogoan dala erabilia. Halan: *igarian edo uger* (11), bizkaiera ekialde-sartaldetako aldaerak juntaduraz alkarturik darabilzanean. Beste adibide bat: *lupatza, karkaba atsituban* (11).

### SERMOI BATEN SARRERAREN HURRENGOA. LEHENENGO ZATIA

Pekatu mortalaren ganian

*Ne dixeris: Peccavi, et ¿quid mihi accidit triste?*

Eneuke gura, neure kristinauba, aitu dagizun, esaten dodanian egoera edo estadu triste ta bildurgarri-ikaragarrikua dala pekatu mortalian daguan arimiarena, galdu eragiten deutzazan ondasunakgaitik; eneuke gura, dinot, aitu dagizun, esaten dodala munduko ondasunakgaitik, zeintzuk egiten daben mundutarren zorijon guzurrezkua. Arako ondasunak, zeintzuk Jaungoikuak bere probidenzija adoragarri ta juizijo aratu ezineko bategatik emoten deutsezan onai ta deungai, pekatarijai ta santubai. Eztot esaten diru, ondasun, edertasun, jakiturija, osasun, onra ta beste naturalezako ondasun edo doiakgaitik / ondasun berezko edo doe naturalakgaitik, zeintzuk gozetan ditubezan sarri askotan Jaungoikua ofendiduten bizi dirianak. Ordia / mailla goragokuak dira nik dinodazan ondasunak. Dira ondasun batzuk, euren anditasunian Jaungoikozkuak, iraupe-nian beti-betikuak, ta ugaritasunian azkenbaakuak. Dira ondasun batzuk, espirituzkuak, prezijorik ifini ezin leikijuenak, ta edertasun guztijen gainetikuak. Dira, bada, arteztasun edo justizija lelengokua, grazija santutugillia, betiko gloriya, eta geure Jaungoiko neurribaakua.

Bai, kristinaubak; esan dot dirautsubedala arteztasun edo justizija lelengokuagaiti,

Egoarriaz irakurteko txatala da berez, erakustekorik asko dauena gaurko irakurle-ontzat, euskerearen eta erretorikaren alde-tik, behinik behin.

zeinegaz aurkitu zan jantzita lelengo gizona. Arako arteztasuna, zeinek apainduten eban onoidade edo perfekzino txito askogaz, egiten ebala bere gorputzeko guraarri-jen, ta bijotzeko abijada, zirkin edo mobimentuben jabe bakarra; ezin euki leikiala minik, ez il biarrik; egiten ebala mundu guztiko nausi, ta eukazala bere agindura txori guztijak, arrainak, alemanijak, prizitjak, arbolak, lorak ta frutu guztijak; edertuten ebala jakiturija guztizko andi bategaz, aituten zituzala gauza guztijak zirian moduban; eta egiten ebala, alan gorputzian, zeinda ariman, Jaungoikuaren amodijuaren gogokuena, zeinen lege gozo ta bigunaren beian bizi zan.

Berba egiten deustubet grazija santutugilliagaitik, arako izate Jaungoikozkua, zeinek egiten gaituzan garbijak, ederrak, santubak, Jaungoikuaren adiskidiak, bere gloriyaren erederubak ta bere seme maitiak. Arako argi guztiz miragarrikoko Jaungoikoz gure arimai emona, zeinegaz argituten dirian gure bijotzak, sortuten dirian guraari santubak, egiten dirian egitade edo obra mirarizkuak, sinistuten dan sendotasunagaz, amentan dan gogo bizijagaz, bildur izaten dan ikaratu bagarik, ta alegeratu laarregi bagarik. Arako Jaungoikuaren izate edo natura-

lezan parte eukitia, zeinegaz egiten garian goituezinekuak ta diamantia baino irrimia-guak ta senduaguak munduko ta infernuko alizate edo potestade guztijen kontra. Arako grazija, zein dan santutasunaren asipena (edo asieria), obra oneen iturrija, merezi-mentuben sustraija eta zorijontasuneko prenda seguruba. ===

Berba eguiten deustubet glorijsako ondasunakgaitik. Baia zer esan al neikezube nik, arako zeruko Jerusalengo ondasunakgaitik? Baia zer esan nei nik ango diamantezko murullakgaitik, esmeraldazko ateakgaitik, urrezurizko kaliakgaitik, urregorrizko plazaakgaitik, kristala baino ederragoakgaitik, argijaguakgaitik? Ango jauregi edo palazijo guztizko andi miragarrikuakgaitik, ango ortu edo jardin eder, arbola, lora ta bedar jenero guztijetakoz betiakgaitik, ango esnezko ta estizko iturri ta errekaakgaitik? Zer esan al neizube nik bertako jente andi, kontau bere ezinekuakgaitik, guztijak diriala guztizko jakitunak, guztizko ederrak, guztizko galantak, eta eguzkijak baino argijago egiten dabenak? Zer esan al izango deustubet nik birjineen erreskada zuri ederragaitik, martirijeen banda ain andijagaitik, konfesoreen, apostoluben, patriarken, profeteen ta beste santu ta esperitu zorijonekuen, eguzkijaren arraijuakaz legez argiz jantzita dagozanakgaitik, San Paulo apostolubak berak zeruban egon izan ezkeru badino, ez begik ikusi dabela, ez belarrik entzun dabela, ez gizonaren bijotzera eldu leitekiala Jaungoikuak bera serbidu ta ametan dabenarentzat gertautau daukan atseginen, erregaluben, ditxeen, pozeen ta gloriheen azkenbaakotasuna? Baia nik esan al banei bere, irago eizube astiro zeuben barruban, aitu daizuben zelanbait ze ondasunak kenduten deuskuzan pekatubak.

Baita berba egiten deustubet azkenez, ondasun guztijen asiera asierabaako ta azken azkenbaakugaitik, zein dan Jaungoikuak; arako Jaun neurribaakua, betikua, aituezinekua, santuba, nausija ta guztizko andija; arako Jauna, guztiz aberatsa, guztizko gozua, guztizko maitegarrija, zeuben Aita, zeuben erredentoria, zeuben egille edo krijadoria, zeuben zainzaillia, zeuben maizuba ta zeuben jueza.

Esaten deustubet arako jauna, zeinegaitik ez gizonak, ez aingerubak berba egin leijen biar dan legez, geijago dalako neurri bagarik, aingerubak ta gizonak esan ta pensau al leijen baino. Orain aitetu deustubedazan ondasun guzti oneek dira esan gura nituzanak, esaten izan dodanian pekatu mortaleko egoera edo estaduba dala estadu galgarri ta ikaragarrikuak, galduerazoten edo kenduten deuskuzan ondasunakgaitik.

Pensau egizube bada orain arima bat eurekaz guztijakaz apainduta, eta ikusiko dozube ze ikusgarri miragarrikuak dan zerubarentzat ta lurrarentzat. Pensau egizube arima bat guztija puruba edo zurija, guztija garbija, guztija ederra, bere guraari guztijak bere agindura daukazala, bake guztizko andi bategaz, jakiturija txitoko andi bategaz mundu guztiko agintaritzak bakarragaz, fede bizijagaz, esperantza ziertubagaz, karidade arrigarrizko bategaz, parte daukala Jaungoikuaren izate edo naturalezan; arima bat aingerubak jaoten dabena, demoninuk bildur deustena, Jaungoikuak maite dabena, Espiritu Santubaren bizileku edo tenpluba, Trinidad txito santiaren irudija eta beti-betik gloriarako eskubide edo deretxo dudau ezinekua daukana. Uste izan zinaije zeubek gauza ederragorik, zoragarrijagorik, maitegarrijagorik, geijago gura izan leikianik?



Bada aitu egizube orain. Arima guztizko aberats ta zorijoneko onek pekatu mortal bat egiten daben instantian, nai izan deilla berbetatik iragoten dan pensamentu utsez-kua, nai berbazko, nai obrazko beingo baten iragoten dana, galduten dau bere edertasun guztija, bere aberastasun guztija, eta geratuten da guztizko pobre ta gorrotagarri. Uste eukian ez ebala ezer falta, ez eukala ezeren biarrik, ondasunez ta ditxaz beterik eguala, eta ija ezta ikusten beragan laserija, miseri-ja, itsutasuna ta billostasuna baino: *Dives sum et locupletatus, et nullius egeo, et necis quia tu es miser et miserabilis, et caecus, et paupér, et nudus*. Pekatu mortal bat eginaz batera dala soberbijazkua, lotsagarritzkua, gorrotozkua, bengantzazko nai beste edozein modutakua, galduten dau bizigarrija emoten eutsan karidadeko bizitzia, ta geratuten da bene-benetan illik pekatuban. *Nomen habes quod vivas, et mortuus es*. Pekatu bat egin daijenekoxe billostuten dabe Espiritu Santubaren doetatik, eta geratuten da zaurituta edo eriduta, naturalezia- ren doietan. Illunduten da adina edo enteni- mentuba, itsututen da borondatia, makaldu- ten da fedia, otzituten da esperantzia, sututen dira asarrelak ta guraalak (edo gor- putzeko guraarajak galduten dabe frenuba); biurtuten da zuritasuna ezaintasunian, bere libertadia menpekotasunian, bere jakiturija ezjakinian (edo ignoranzijan), bere bakia, soseguba ekatz guztizko gogor geratuezine- ko baten. Pekatu egiten dabenian bertan gal- duten dau arteztasun edo justizija (asierakua edo) sortuerakua, galduten dau grazija san- tutugina, galduten dau glorijako deretxua ta herenzija, eta galduten dau Jaungoikua.

O kalte azkenbaakua, ta ze gitxi iragoten zaituben goguan gizonak!<sup>2</sup> Bein pekatu

egin ezkerro, neure entzula maitiak, baneu- ko bere aingeruben jakiturija, artuco banitu bere berbeta modu guztijak, esango baneu bere gero jazoko dan guztija, eta errekek gelditu ta mendijak batetik bestera iragote- ko fedia baneuko bere, *nihil mihi prodest*, ez leusket balijo ezebere glorijarako, Jaun- goikuak bere gracijara biurtu ezik. Baneu- ko bere tormentu jenero guztijak iragoteko beste sendotasun, garretara neure gorputza emon arteragino, egingo banitu bere ermu- betako<sup>3</sup> penitente guztijak baino baru gogo- rraguak, azotauko baneu bere neure gorpu- tza aragi zatijak jausi arteraino, estutu ta lotuko banintz bere zilizijoz eta kateaz, *nihil mihi prodest*, bapere ez leuskide bali- joko, Jaungoikuak, nigaz errukitu ta bere adiskidetasunera biurtu ezik. Juango banin- tz bere erromerijan Erromara ta Jerusalene- ra, emango baneuntse bere pobriai neure euki edo hazienda guztija, *nihil mihi pro- dest*, guztija izango litzate galduba, guztija alperrikua. Batu izan banitu bere santu guz- tijak, aingeru guztijak ta Marija Birjina guztiz santiak baino merezimentu geijago, pekatu eginiko instantian guztija galdu neban, guztija akabau zan; eta amaitu edo akabau zirian nire orazinuak, nire limos- nak, nire erromerijak; geratu nintzan zeru- tik deseredauta, Satanasen eskupeko eta gertu erretan egoteko infernuban beti-beti- ko: *Haecine est urbs perfecti decovis, gau- dium universae terrae?* Au daa arako bei- nolako arima ederra ta maitegarrija? Au da arako zerubaren ta lurraren atsegina zan arimia? Bada zelan galdu dau bere ederta- sun ta argitasun guztija? Zelan desanparau dau bere jakiturijak ta bere ain asko aliza- tiak? Zelan Jaungoikuaren alaba maitega- ritik biurtu da Luziferren menpekco? Espi-

ritu Santubaren bizileku edo tenplutik egin da demoninuaren etxebizitza? *Manum suam misit hostis ad omnia desiderabilia ejus*. Pekatubak, arimen arerijo kruelak ostu dituz bere ondasun guztijak, billostu dau bere euki guztitik ta artu dituz beragan bere bentaja, zorion ta ditxa guztijak. Pekatuba izan da kausa, ikusi dedin arimia desanparauta bere adiskide aingeru ta santubakgandik, ta egoera ain errukarrijan dakusen guztijakgandik. *Omnes amici ejus spreverunt eam, et facti sunt ei inimici*. Pekatuba izan da kausa bere arerijo guztijak demoninuak burla egin daijuen, lotsabagakerijaz bete daijen ta ostikopetu daijen. *Aperuerunt super te os suum omnes inimici tui: sibilaverunt, et dixerunt: devorabimus*. Pekatubak, azkenik, atara dau arimatik bere edertasun guztija, bere grazija, bere jakiturija, bere ondasunak, bere glori- ja, bere Jaungoikua: *Et egressus est á filia Sion omnis decor ejus*. Neure kristinaubak, badira asko kalte (edo galdute) oneek zeuben pekatuko lo sorretik<sup>4</sup> irazartuteko? Badira asko kalte oneek, ezautu daizuben pekatubaren eskergetasuna? Esango dozube, oraindino bere ze kalte etorri jatzuben pekatu eginaz? *Peccavi, et quid mihi accidit triste?* Alan badinozube, itxi egidazube negar egiten zeuben estadu kaltegarri negargarrizkua.

Gizon etxagun, aberats noble ta altsubak! Ainbat anditasun ta zorijonez Jaungoikuaren grazijaz espirituko atseginetan igarian edo uger zenbiltzenok, glori-jako aingerubakaz erregaletan zinianok, azkenbaako ondasuntegi ta ondasun egijazkuak gozetan zendubezanok; zelan orain gorrotuak zeuben bijotzetan leku artu dabenetik, soberbija zeuben arimen jabe egin danetik, etxun

ekandubetako lupatza / karkaba atsituban, ta bat egiten zaree beragaz? *Qui nutriebantur in croceis, amplexati sunt stercora*.

Umedun amaa! Beste denpora baten zeuben alabai kontu egiten zeuntsanak, arduraz zaindu ta laguntasun guztija emoten zeuntsanak, fedeko doktrinia ta oitura onak irakasten zeuntsenak; zelan orain, etxian artuten dozubenetik orrako gizonetzko, zeubek galdu ta kondenetan zaitubezan ori, edo bapere ardurarik artuten eztozubenetik jakiteko zeuben alabak nora urteten daben etxetik, dala egunez nai gabez, badaukee adiskide edo lagun txarren bat, nun edo zetan iragoten daben jaijegunetako arrastegi edo gaberainoko denporia, edo obeto esateko, zeubek bialdu edo gitxienez itxiten deutsezubenetik pena bagarik juaten nai daben erromerija, fiesta, dantza ta beste onelako euren arimako garbitasuna galduteko leku peligruzko jakinetara, egin zare ain krubelak zeuben alabakaz, abandonau, desanparau ta eskandalizetan dozubezala, ezaubera ta zentzun baako alemanijak / abere uzuak legez? *Sed et lamiae nudarerunt mammam: lactaverunt catulos suos: filia populi mei crudelis, quasi structio in deserto*.

Gizon gazte edo mutil sendo ta indartsu- bak!, zeintzuben arimak edurra baino zuri- jago oraindino denpora gitxi danian egoza- nak, marfila baino garbijago ta zafiro ta esmeraldia baino argijago bautismo santu- ban artu eben grazijagaz; zelan orain emon zarienetik desonestidadera, geratu zare bal- tzaigo, ikatza bera baino, ta ezainago ta itxu- sijago infernuko espiritu bat baino? *Denigrata est super carbones facies eorum*.

Leen txito honestaak ta guztiz moduz- kuak zinian neskatillak!; banakatuten zin-

dubezan birjineen garbitasunagaz, ziniala aingeruben alegrija, santuben poza, Espiritu Santubaren etxebizitza, ta Jesusen esposa guztiz maitetubak. Zelan orain, galdu zendubenetik arimako garbitasuna, ibiltiagaitik dantzetan, jolasetan ta berbaldi edo konbersazioetan mutil gaztiakaz ta jente askatu, nasai ta asakaiakaz,<sup>5</sup> egin zaree bidutzi<sup>6</sup> edo pritzija ikaragarrikuak, gorrotoz baino begiratu ezin deustubela Jaungoikuak, aingerubak eta santubak, egin zarielako demoni- nuaren menpeko edo krijada bilau, zeinek zeuben jabe krubela legez lotuten dituzan zuben idunak pekatubaren kateakaz, ezteustubela isten jasoten zeuben buruba ekandu txarren zikintzatik edo zingiratik ontasuneko zerura? *Abjecerunt in terra capita sua virgines, Jerusalem.*

Ai, ai, neure entzula maitiak! Pekatubak amaitu edo akabau dau gure ondasun guztijakaz, pekatubak atara dau geure bijotzetik alegrija, ostu dau geure arimako poza, kendu deusku grazijazko koroia, gloriako herenzija, zeinek nobletuten ginduzan Jaungoikuaren semiak legez. Ai guriak, pekatu egin dogulako! *Defecit gaudium cordis nostri: versus est in luctum chorus noster. Cecidit corona capitibus nostri: vae nobis quia peccavimus.* Baia zer da au, neure entzula maitiak! Zelan da egotia neure entzulen arteko pekatari bat pekatubaren aldigesto lo ain gogorrian, zeinda eztaben irazartuten ez bozak, ez diadarrak, ez pekatubaren itxaso garratzian itoten garianen zizpurubak? *Quid tu sopoie deprimeris?*

Zu, gizon, inoren haziendia ainbat urtetan zeugan daukazuna, zure konzienzija usika badaukazu bere, predikadoriak zematuten bazaitube bere, errazoiak ta justizijak diadar egiten badeutsube bere, nos artian

iraungo dozu lo pekatuban? Nos arteraino biziko zara gorroto orregaz, inbidija orregaz ta proximuaganako borondate txarragaz? Alemanijen baino ezainago dan ordikerijako ekandu txaar edo bizijo orregaz galduten dozula errazoi ta zentzuna? Jaungoikuaren izen santuba alperrik aoan artuteko, edo juramentu alperrik egiteko bizijo orregaz, ta biarra egiteko kodizijagaitik jaijegunetan? *Surge et invoca Deum tuum.* Jagi zaitez, gizon errukarrija, eta damututa dei egijozu Jaungoikuari, zein galdu dozun lastimaz.

Ditxabaako emakumia, ainbeste denpora onetan desonestidadera emonda bizi zariana, itxi bagarik zeure ondamediija, zeure pekatuba azaldautu / ezker bere, pensau bere bagarik oraintxe beriala ilgo bazina, jatsiko zinatekezala elexa onetatik infernubetara, an erretan egoteko eternidade guztijan, *quid tu sopoie deprimeris?* Zegaitik irazartuten etzara zeure pekatutik, botaten dozuzala zeure apainduriija laarregijak, janzten zariala modu onian, arteztuten dozuzala zeure oitura edo kostunbriak, kobru emoten deutsezula zeure eginbiarrai (edo obligazinoai) eta artuten dozula bizimodu benetako kristinauba pekatu guztijen konfesino on baten bitartez, artuteko barriro galdu dozun Jaungoikuaren grazija?

Gazte maldezinogina, biraotija ta probokatzaillia, beneno ilgarriz beteta daukazula sierpiaren<sup>7</sup> miin ori, zeinegaz atsitu ta galduten dozuzan zeugaz tratetan daben guztijak, *quid in sopoie deprimeris?* Ze lozorro ain astun ta ikaragarriku da artu zaituzana, ez ikusteko zeure arimiaren kondenzino ta beste ain askorena, zeintzuk eskandalizau dozuzan zeure kanta loijakaz, zeure pekatuako egin deutsezuzan konbit lotsarizkuakaz, zeure berbete deunga ta bizimo-

du galdubagaz? *Surge et invoca Deum tuum*. Jagi zaitetz pekatuko egoera orretatik, nun zagozan bautismoko grazija galdu zendubenetik ona; dei egijozu zeure Jaungoikuari ta eskatu egijozu bere miserikordija.

Ezautu egizube, aitu egizube ta astiro pensau egizube guztijok, gizonok eta androk, mutilok ta neskatxok, pekatubakgaitik galduten dala grazija, galduten dala gloriija ta galduten dala Jaungoikua; eta ain-

bat ondasun eder lastimaz galdubak asko ezpadira, ezagutu daizuben pekatuban dagan arimiaren egoera edo estadu negargarrizkua, zein dan sermo onetako lelengo puntuba edo zatija; ezautu egizube gitxienez dakartzubezan azkenbaako kalteetatik, bai bizitzan, bai erijotzan, ta bai eternidade guztijan, zein dan neure sermoeko bigarren zatija, zein eskatuten deustubet entzun daizubela zurtasunaz.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Etxebarria, Nagore: *Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*. Frantziskotarren artxiboak. Bilbao: Labayru Ikastegia, 2005.

<sup>2</sup> *Goguan irago*: gogoan erabili.

<sup>3</sup> *Ermu*: basamortua.

<sup>4</sup> *Lo sor*: lozorroa, lo astuna, 'letargo'.

<sup>5</sup> *Asakai*: asegaia, asezalea.

<sup>6</sup> *Bidutzi*: munstroa.

<sup>7</sup> *Sierpe*: sugea.



# Goitzenak

Aurreko gauean Paulek ez eban lo etxean egin, ahaleginak egingo ebazala, baina kanpoan, beharbada, beste gau bat emon beharko ebala. Bakarbakarrik egin beharreko gauak luzeak ziran. Ez eban pentsau behar horren ganera, ez. Kemena erakutsi behar eban, bera bakarrik be ondo moldatzen zala. Nori? Gizarteari? Bere buruari. Hori, bere buruari erakutsi behar izate hori, zer eta erakutsi, barregarria zan, ostera; negargarria, ia-ia.

Lanetik artez umearen bila eskolara. Bertan nasai antzean berba egin beste gurasoakaz, dvd-an ikusitako filmez, umeez, dana egiteko zailtasunez, eta barre egin umeen eta gurasoen ateraldiakaz. Astebarruko arratsaldeetako ezaguna zan, ezuste bakoa; euskarri sendoa. Danek egiten eben ahalegina, gurata edo berez, arratsaldeak leunak izan eitezan. Kristina lasatu egin zan arrasti haretan, eta lasatu jakon lepoaren gogorra, apur bat baino ez bazan be. Buru barruko zurruntasunak lepoan hartzen eban itxurea, eta labarretako hatxen antzean, ertz eta guzti, eratzen jakon bizkarrean. Etxean, barriz, Nikolak etxean eskatutakoa emon eutsan: beragaz olgetako denporea eta arreta osoa. Nikolak, dana eskatu; Kristinak, dana emon. Eta ordainetan, estu-estu besarkatzen eban batzuetan, jaiotearren eskerrak emoteko, han egotearren, barrea eta maitetasuna hain erraz erakustearren. Maite eban, maite.

Nikolari, afalostean laminen, jentilen eta epotxen gorabeherak kontau eutsazan, lo-lo esan eta amesetan itxi betazalen azpian. Izaren hotza igarri eban Kristinak pijamearen ganetik, bigarren gauean beti egozan hotzago, eta areago, hirugarrenean. Laugarren gaua, oraindino, probau barik eukan. Eskerrak. Zentimetroak metroak ziran izaretan. Ohearen beste aldera abiau zan, gizon usaina azalean sartu eiten. Begiak itxi eta bertan ez egon arren, lurrunak begien iluntasun osoa hartzen eban, gizon usainak gorputz osoa biltzen eutsan, ukendu baten antzera. Loak hartzea besterik ez eban gura; horretan egoala gorputza luzatu eban, eta hotza zabaldu jakon oin-puntetatik gora. Espazio usaintsua zatitu jakon; gerizpeak bakartasuna sakondu eutsan. Argia biztu eban, eta irratia, berba arrotz hareen munduari entzuteko. Bakartadea garrasika eukan.

Nikolari zenbat bider ez ete eutsan esan argiak amatauta ez dala pasetan ezer, jakin behar dauala ilunpean lo egiten. Uste osoa eukan umetatik irakatsi ezker, ez jakola beraren antzean pasauko, helduaroan argia biztuta behar izatea.

Ezagutu ebanean Gari deitzen zan, Paul bihurtu arte. Eta orain be Gari zan mantearen azpian, ohean desokupautako espazioak Gari eban izena. Biri-ketan eukan tatuauta. Tatuajearen tinta baltzak iges egin eta biriketako aidea mintzen eutsan, ostera,

batzuetan. Zenbat eta urte gehiago igaro, orduan eta gehiago gura eutsan. Maitetasuna ez al zan ba txikiagotzen, narriadurearen narriaduraz?

Laster edurra egingo eban. Nikolak disfrutauko eban gehien. Irribarre txikia zabaldu jakon, Nikola edurretan ikusi ebanean. Arrotza eta hotza zan oraingo bizilekua. Hizkuntza ikasi eben ikastearen ikasteaz, ikasliburuak, telebista, irratia, aldizkariak, egunkariak, goseti irakurri eta entzuten ebezan, ahalik eta gehien iruntsi guran. Nikolak berez-berez ikasi eban. Eta berez-berez ikasi eban euskeraz etxean baino ezin ebela egin. Erbestean egozan, Nikolak zer zan ez jakin arren. Erbestea berba handia begitantzen jakon Kristinari, handiegia. Kanpoan. Bai, kanpoan, errazago egiten jakon. Non egoan? Kanpoan. Euskal Herritik kanpora.

Urteak ziran Arabako lautada urretsua ikusi barik egoala, hango ardao egin barria dastatu barik, hango hotza hazurretan izan barik. Etxeko hotza beti da beroagoa. Neguko hotza eta udako bero zapa azalean ebazan faltan, era izugarrian. Ez eban horretan bere burua jarten ia inoiz, faltea berez etorten jakon, orde; eta arpegi eta eskuen itxurea hartzen eban, berben eta doinuen itxurea, hango kaleena, zelai zabalena.

Nikola negarrez entzun eban, Kristinari jagokozan negarrak umeak egiten ebazan, ama, ama, ama, deika. Negarrak zorrotzak ziran, geziak maminean, bihotzaren bila. Han egoan bere ohe txikerrean, izartu barik, negar baten.

Hurrengo egunean iratzargailuak jo ebanerako, begi zabalik egoan, akordau ezinik ea lorik egin eban. Gorputzak gaupasa egin ebala inotsan. Etxean berunezko geruza batek dana hartu eban, ez eban itxi ibilteko lekurik. Narraz eroiazan zanak. Pentsamentuetan galtzea ez zan barria, burua lurretik metro batera euki ebanetik egiten eban. Errealidadeagaz bat egiteko behar ebazan pentsamentuak,

bere burua munduan jarteko. Arnasa hartzea beste behar ebazan.

Egun on, amatxuu! Eta berez-berez, Nikolak lekua egin eban berunean, bidea amaganaino. Ezpanak zabaldu jakozan eta mosuz josi eban umearen arpegia. Mundua betikoa zan barriro be. Armozua egin, umea eta bere burua jantzi, eskolara, eta lanera. Gauza bakotxari eraz helduko eutsan, jakin barik arratsaldean pasauko zana.

Nagusiak esan eutsan arratsaldean lehenago urteteko, behar gitxi egoala-eta. Etxera joan eta aspaldiko partez sofan etxun zan, etxean egiteko egoana burutik bazterturik. Liburuko ipuinak normalean baino luzeagoak ziran, mundua ezabatuz joan zan orrialdez orrialde, eta gero eta beteagoa egin, orrialdeetako. Erabat aldendu zan egunero kotik, telefonoaren alarmeak jo arte. Arineketan etxetik alde egin eban, Nikolaren bila joateko. Ikaskide baten urtebetetze-jaiaren egoan hurreko herri txiki batean. Kotxea hartu, eta ezkerretara jo baino lehen, espiluan Paulen gorpuzkerea ikusi ei eban, atapostan.

Atzera etxera joatekotan egon zan, baina belu ebilen. Irratia jarri eban, ahoa edateko zabaltzen dan modu automatikoan. Alboko herrira sartutakotan, albistegietan entzun eban armak itxi ebazala, ETA esan, eta erakundea entzun eban.

Azken hogeitau urteetako argazkiak eta sekuentziak etorri jakozan galapan. Jakin arren hur egoala momentua, eta askotan horren ganera pentsau eta berba egin arren, burua libre ebilen fotografiak eta momentuak atontzen, bere bidea egiten, bihotza taupaka gorputz osoan. Gurasoak, neba-arrebak, lobak eta lagunak izoztuta eukazan buruan, azkenengoz ikusi ebazan modu berean. Eta oraindino ia ordubete beharko eban etxean aurrez aurre Gari ikusteko, besarkatzeko, eta Paul behin betiko ixteko, baita berak Kristina ixteko be.

# Udagoieneko irudiak

## UDAGOIENeko IRUDIA 1

Gorantz zuzendu du aurpegia. Uso-andana bat dator zerua ilunduz. Arkatzarekin lerro zuzen bat marraztu du (euri-tanten ibilbidea, argi-izpi bat, arrainen ahoan bere arimaren bila dabilen arrantzalearen haria, soka-tresna baten nota, edozein kolore puru). Erretinak badu gomuta. Emakumeak bira oso bat egin du, keinu zabala besoa luzatuta, paisaia ekortu guran.



## UDAGOIENeko IRUDIA 2

Olatuen tua, marmoken belak, egurrezko hitz bat jitoan, algetako argi-anpuluak.


Zer dago tantan? Izenordainak: zu eta ni, gu izan gabe.  
Ispilu hauskorrean, amildegirako gonbita.

Hotz ditu eskuak. Gizonak hartzen dizkio, eta estaltzen.

### UDAGOIENeko IRUDIA 3

Udazkenak emango dio udak eman ez diona: grapa pare bat malkoei eusteko.

Hauxe da egoera, irlaren arrakala batean: hankak itsas likenez beteriko harri zapal batean tinko, eskuak latz haitzaren kontra, bularrak dantza zurian bainu-jantzitik kanpora. Gizonak isuri du. Eguerdiko argiak ezpainak iziotzen dizkie ginebrazko lip-gloss batek bezala. Igeri itzultzen dira urertzera. Gizonaren hats garratza kriseilu bat da arekak argitzen.



### UDAGOIENeko IRUDIA 4

Emakumeak badaki zauria ez dela itxiko. Badaki oholtza bat dela hondartza orain. Love me, love me, love me diote haren oinatzek harea zartatzean.

Kristalaren bestaldean geratuko da dena, euriteen ondoren. Aldirietan dabiltzan taxiak legez, lainoaren ahotsera baitaratuko dira biak.

Ipuin bateko teilatu gorria irudituko zaie batak besteari emandako guztia.



LUIGI ANSELMI

# Olerkiak

1

## BIHARAMUNA

Jainko larderiatsu batek  
parabisutik bezala,  
eguzkiak zure ohantzetik  
erbestera ninduen hartan,  
artega abiatu nintzen  
baratzeko  
bidexketan barrena,  
dardaraka,  
gauetz zure ondoan  
atxikitako usain  
eta oroipen gozoek  
eztigaika zebiltzan  
erle lilizaleak  
erakarriko  
ote zituzten  
beldurrez.

2

## USTE USTELAK

Luzaz itxita  
egondako etxera  
heldu zara berriro  
eta leiho handia  
zabaltzerakoan  
amarauna dakusazu,  
hariak tenk eta distirant,  
musika tresna  
berri batenak  
bezalatsu,  
eta amaraunaren erdian,  
goseak amikaturik,  
armiarma mehea,  
sorginkeria batek edo  
behiala bere jauregian  
bakartutako errege dohakabea,  
harriturik, zuri so  
irri ero harro batez,  
bere sare perfektuan  
sekula inork ikusi  
ihizirik handiena  
atzeman duelako  
uste betean...



Zinez ederra  
 ilbete hezur kolore hori,  
 mendi lepoa arras  
 estaltzen duten etxe  
 itsusien teilatuen gainetik  
 tupustean sortu dena,  
 hondakindegian lili bat iduri.

Puxika antza du eta  
 puxikaren antzera altxatu da  
 zeru beltzean gora,  
 haur baten eskutik ihesean bezala.

Haurraren begietan negarrik ez, ordea,  
 loak hartu baitu jadaneko.

Zein ote da  
 haurren eskuetarik  
 ihesi joandako  
 puxika horien helmuga?

Iraunen ote dute,  
 ametsen gisara,  
 goizalbara artio  
 lehertu gaberik?

‘Helduko ote dira  
 izarretaraino  
 aterpe bila?

Ala pulunpatuko  
 itsaso urrunean  
 (edo aintzira batean,  
 berdin da)  
 ilargia bezainbeste arnoa  
 maite zuen poeta  
 txinatar haren eran?

# Andre Emili balada eredu desezagun bat eta Azkuek bildua

Josune Olabarriari, esker eta merezi onez

## SARRERA

Euskal balada zaharren eredu desezagunak eta argitaragabeak ekarri ohi ditugu aldizkari honetako orrietara. Gaurko lantto honetan Azkueren kantutegiko ereduak eta beste eredu argitaragabe bat hartuko ditugu aztergai. Bi eredu horiek ardatz harturik matazatuko dugu geure artikuluko edukia. Gainerako ereduak, hots, Oihenartek, Karl Wilhem Humboldt-ek eta Manuel Lekuonak bildutakoek ere badute zer aztertzea, baina eredu guztiak hona ekaritzeak eta aztertzeak luzeegi joko liguke. Aldizkari honetako oraingo eginkizunean, ordea, bi eredu aztertu eta iruzkinduko ditugu. Azkuek argitara eman zuena eta bere eskuidatzietan agertzen den jatorrizkoa –hots, benetako eredu folkorezalearen apetzaz jantzi gabea– begiz begi jarri eta iruzkinduko ditugu. Balada beraren beste eredu desezagun bat ere argitaratuko dugu artikuluko honetan. Eredu hori Pierre Lafitteri euskatzale batek kartaz igorria da eta Lafitteren paperen artetik oraingo gure lan honetan ikusiko du lehenengoz argia.

## 1. AZKUEREN EREDU ARGITARATUA

Azkuek “Curiosos documentos copiados en la biblioteca imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922” (*Euskera* 1925, 60-66 or.) artikuluan Karl Wilhem Humboldt hizkuntzalariak Euskal Herrian bildutako balada bat eman zuen lehenengoz argitara.

Azkuek berak paper zaharretan ez ezik Etxalarren, Nafarroan, ere ahorik harako eredu bat jaso zuen. Eredu hori *Aita nuen saltzaile* izenburupean ezagutzen dugu. Balada bera Azkuek bi lekutan eman zuen argitara. Lehenengo *Cancionero Selecto* deitzen zuen kantutegian. *Cancionero Selecto* delako hau *Cancionero Popular del Pais Vasco; Canciones selectas armonizadas por el autor* delako lana da. Eredu bera, bigarrenez, bere kantutegirik famatuenean argitara zuen *Cancionero popular vasco* izenekoan. Kantutegi horretako ereduak Azkuek bildu zituen hitz eta doinu berean kantaturik entzun dugu euskalzale askok Lourdes Iriondo- ren abots sarkorrean. Azkuek *Cancionero Popular*

Vasco lanean 375 kanta-zenbakian honelaxe transkribatzen du:

1

Aita nuen saltzaile,  
ama diruen artzaile;  
nere anaia Bernardo  
moru-efira entregatzaile.

2

Saldu nenduen dirutan,  
dirutan ere aunitzean;  
neunek pisaala ufetan  
eztitako bi kupeletan.

Neure alaba Miaféz  
¿zer dun ofela nigáféz?  
ire yauntziak eginik tziauden  
ufegofiz eta zilaféz.

Hiru ahapaldi hauek lehenago *Cancionero Selecto* delakoan argitara eman zituenean lehen ahapaldiko *entregatzaile* jarri beharrean *esku-emaille* jartzen du. Era berean, *pisa ala* jarri beharrean *pisa* jartzen du kantutegi berean.

Kantutegi nagusian, ordea, hiru ahapaldiko balada-testuari bi ohar nagusi eransten dizkio Azkuek. Lehena bigarren ahapaldiari dagokio eta *eztitako bi kupeletan* transkribatu badu ere, berriemaileak edo kantariak *bi ezti-kupeletan* esan zuela dio. Bigarren oharra hirugarren ahapaldiari dagokio *ufegofiz eta zilaféz* bukaera kantariak *ufearekin zilaféz* esan zuela dio Azkuek. Bi ohar hauek, kontu diferente-rengatik harrigarri egiten zaizkigu. Bi ohar hauek euskararen morfologia bereziko bi kontu interesgarri ditugu. Lehena bete-betean ukitzen du Patxi Altunaren<sup>1</sup> artikulu batek eta bigarrena Joseba A. Lakarraren artikulu interesgarri bik.

Egiaz eta begiaz esan ote zuen kantariak *bi ezti-kupeletan*? Ez ote da esapide hau euskal morfologia

giaren legeen kontrakoa? Euskal morfologia legeen arauera *ezti-kupela* eta *kupela-etzia* guztiz desberdinak dira. Lehena “ontzia” da, eztitarako erabiltzen den kupela dugu lehena. Bigarrena ezti-neurria edo ezti-kopurua da, bi kupela eztiz beteak, alegia. Hitz nagusiak letra larriz jarriko bagenu lehean *ezti KUPELA* litzateke, bigarrena *kupela EZTIA*. Azkuek eskaintzen dituen bi ereduak (hots, *eztitako bi kupeletan* eta *bi ezti-kupeletan*), beraz, guztiz harrigarriak egiten zaizkigu. Harrigarriak bezain euskal morfologia legeen kontrakoak. Bi-bietan kupelek balio duten prezioan saltzen da Andre Emili. Gainerako ereduetan, ordea, ez dugu horrelakorik ikusten. Oihenartek bildu zuenean *laurogei/berrehun dupha eztitan* dator. Humboldt-ek Harranbiletan ahotik jaso zuen ereduaren *berrehun dupa eztitan* ikusten dugu. Manuel Lekuonaren ereduaren ere berdin: *zazpi kantaro eztiyetan*. Eredu guzti-guztietan, Azkuek transkribatu zuenean izan ezik, *etzia* saltzen da. Azkuek, beraz, zuzen transkribatu ote zuen? Duda egiten dugu, berak dioen bezalaxe, *Bi ezti-kupeletan, dijo el cantor* hori bene-benetakoa izatea. Ez ote zen buruz ari Lekeitioko biltzaile handia? Jatorrizko eskuidatzietara jo ondoren besterik ikusi dugu: *bi kupela eztiyetan*.

Hiru ahapaldiko kantu horretan, ordea, ez da hori aldaketa bakarra. Jatorrizkoan *dirutan eta aunitzetan* ikusten dugu. Aditzei dagokienez, nola izan liteke *nenduen*? Alderdi harrigarri bi egiten zaizkigu. Etxalarren *ninduten* askoz gisakoagoa eta normalagoa egiten zitzaigun. Bizkaiko adizki bat lerratu zitzaiola iruditzen zitzaigun. Lehenengo eta behin *nen-* delakoa harrigarria da eta harrigarria da, era berean, *-ten* bukaera. Zalantza hauek argitzeko Azkueren papere-tara jo eta misterioa zulatuko dugu.

## 2. AZKUEREN ESKUIDATZIKO EREDU BENETAKOA

Jatorrizko eskuidatzietara jo eta benetako eredu

transkribatu nahi dugu atal honetan, beraz. Azkue-  
ren jatorrizko eskuidatziak Bilboko Euskaltzaindi-  
ko egoitza nagusian, Azkue Bibliotekan dautza.  
Eskuidatzi hauen artean lehen transkripzioak eta  
gerora garbira botatakoak daude. Bi eskuidatzi  
horiek desberdinak dira, askotxotan. Ez dago duda-  
rik lehen transkripzioak direla interesgarrienak.  
Lehen transkripzioan hizkuntzalariak ez du bere  
aurreiritziak jartzen. Lehen eskuidatzia kantariaren  
kantu bene-benetakoa da. Bigarren eskuidatzian,  
garbira botatakoa txukunduegia da askotan. Garbi-  
ra botatakoan, askotan ez da egiazko kanta agertzen  
Azkuek garbitua baino. Garbira bota edo txukundu-  
takoak argitaratuaren tankera hartu ohi du. Azkue-  
ren eskuidatziak digitalizaturik kontsulta litezke  
aipatutako liburutegian. Josune Olabari liburuzain  
prestuaren ahalegin eta jarrera onari zor diot esku-  
idatzien bilaketa.

Gure balada ABA-RMA-2-3-5 kuadernoan 1278  
kanta eta 550 orrialdekoa dugu. Guk puntuazioa  
bakarrik erantsiko diogu, gainerakoa dena da lehen  
eskuidatzikoa.

Aita nuen saltzaile,  
ama diruen artzaile;  
nere anaya Bernardo  
moru-errira entregatzaile.

Saldu nenduten dirutan,  
dirutan eta aunitzetan  
neunek pisa ala urretan,  
bi kupela eztieta.

Lehen transkripzio honek baditu zenbait arazo  
txiki. Argi dago zein den transkripzioaren bigarren  
erabakia. Eman dezagun kasurako *moru-errira* hori  
bigarren idazketa bati dagokiola. Ez dugu argi  
*moru* gainean idatzi baino lehen azpian *mairu* jarri  
ote duen. Era berean, ez dakigu *neunek* horren  
azpian ez ote dagoen *neurek*. Azkuek, dudak alde

batera uzteko, *neunek pisa ala urretan* garbi eta  
argi jarri du gainean.

Bi ahapaldi hauek honela agertzen dira lehen  
transkripzioan. Ohartzekoa da *errira* eta *urretan*  
transkribatzen duela Azkuek bere eskuidatzietan.  
Ez dago esan beharrik gerora *efira* eta *u'etan* jarri-  
ko duela paper inprimatuan. Garbi dago, beraz,  
eskuidatzian *dirutan eta aunitzetan* eta *bi kupela*  
*eztietan* dela. Eskuidatziko *dirutan eta aunitzetan*  
hori aldatu egingo du Azkuek kantutegiko eredu  
argitaratuan: *dirutan ere aunitzetan*. Azkuek *eta*  
kopula *ere* batez aldatuko du. Guk lan honetan argi-  
taratzen dugun Lafitteren ereduaren ere antzeko zer-  
bait ikusiko dugu: *saldu ninduzun dirutan/ dirua*  
*ere urretan*. Kasu honetan folklorezalearen intui-  
zioa zuzen zebilen. Guk geure aldetik, folklorezale-  
aren intuizioa zuzen bazebilen ere, ez dugu ikusten  
ondo bere apetara aldaketa hau egitea.

Jatorrizko testuari gatxezkiola, badirudi *neunek*  
*pisa laurretan* transkribatu duela folklorezaleak,  
baina gerora modu garbiagoan, gorago esan dugun  
bezalaxe, *pisaala urretan* jartzen du. Lehen eredu  
hau (ABA-RMA-5-14-2-84 kanta 34 orrialdean)  
honela garbiratzen du Azkuek:

Aita nuen saltzaile,  
ama diruen artzaile;  
nere anaya Bernardo  
moru-errira entregatzaile.

Saldu nenduen dirutan,  
dirutan ere aunitzetan  
neunek pisa ala urretan,  
bi kupela eztieta.

Garbira emandako bigarren kuaderno honetan  
zuzenketa batzuk egiten ditu. Jatorrizko *dirutan eta*  
*aunitzetan* “*dirutan ere aunitzetan*” egiten du, baina  
*bi kupela eztieta*, ordea, ez du aldatzen. Froga  
argia dugu, beraz, *bi kupela eztieta* esan ziola kan-

tariak Azkueri. Modu horretara euskal morfologia legeak gordetzen dira bete-bete<sup>2</sup>. Modu horretara, era berean, gainerako hiru eredueta esapidearekin bat dator Azkuerena ere. Beste askotan bezala, herriko sena ez da okertzen dena, gramatiko eta eskolatuena baino.

Baladaren hirugarren ahapaldia ABA-RMA-5-144-18 orrialdean aurkitzen da. Hirugarren ahapaldi hau garbiratua edo garbira botatakoa da.

–Neure alaba Miarrez,  
zer dun horrela nigarrez?  
Ire arropak eginik tziauden  
urrearekin zilar[r]ez.

Ahapaldi honetan garbi ikusten dugu *arropak* hitzak eta ez Azkuek argitara eman zuen *yauntziak*. Ahapaldi honetan *neure* posesiboa agertzen bada, nola izan liteke lehen ahapaldian *nere* agertzea? Hirugarren ahapaldi honetan, era berean, *urrearekin zilar[r]ez* egitura zaharra agertzen da. Egitura honetan *X-ekin/-egaz*, *Y* egitura zaharra ikusten dugu. Egitura hau balada batean baino gehiagotan agertzen da eta euskararen egitura zahar bat dugu<sup>3</sup>.

Ez dugu, beraz, inolako dudarik Azkueren aldaera transkribatzeko orduan. Jatorrizko testua oinarritzat harturik, eta folklorezalearen apetak eta garbizalekeriak alde batera utzirik, testua askoz eder eta jatorragoa ateratzen dela deritzagu. Honelaxe transkribatuko genuke, beraz, jatorrizko testua:

Aita nuen saltzaile,  
ama diruen artzaile;  
nere anaia Bernardo  
moru-errira entregatzaile.

Saldu nenduten dirutan,  
dirutan eta aunitzetan:  
neunek pisa ala urretan,  
bi kupela eztiatan.

–Neure alaba Miarrez,  
zer dun horrela nigarrez?  
Ire arropak eginik tziauden  
urrearekin zilar[r]ez.

Testu honetan, beraz, Azkueren bost zuzenketa handi-handiak alde batera utzi eta benetako eredia eskaintzen dugu. Jatorrizko *nenduten* (ez ote dugu minduten jarri behar?) *dirutan eta aunitzetan*, *bi kupela eztiatan*, arropak eta *urrearekin zilarrez* jarri ditugu.

### 3. LAFITTEREN FUNTSEKO ALDAERA BERRIA

Piarres Lafitteren hondoan edo funtsean datzan aldaera berria transkribatuko dugu atal honetan. Aldaera berri hau ez da, guk dakigula, inon argitara eman. Aldaera berri hau ez da, berebat, Lafitteren eskutikakoa, norbaitek postaz bidalitakoa edo eskutik eskura emandakoa baizik. Biltzailearen sinadura diren hiru sigla agertzen dira eskuidatzian. Hiru sigla hauek orrialdearen barranean datoz sinadura gisa. *Une vieille bascophile* horren azpian MTL siglak datoz. Zein ote da sigla horien azpian dauden izen- deiturak? Dakigun bakartxo da emakume bat dugula eta zahar xamarra dela beraren hitzetan *une vieille bascophile* baitio. Sinadura baino lehenagoko testuan ere argi dago emakume bat dela, *curieux* esan beharrean *curieuse* baitio. Diogun, azkenik, paper solte honetan ez datorrela inongo datarik ere.

Aldaera hau bildu zuenak azalpentxo batzuk ematen ditu frantsesez. Aldaera honek guk nahi baino ahapaldi gutxiago ditu, baina zerbait baino gehiago da, hala ere. Paper soltea da diogun dokumentua eta bi orrialdeetan idatzia dago. Paper solte horretan Andre Emiliren bi ahapaldi datoz. Andre

Emili baladaren bi ahapaldi gutxi direla pentsa dezake batek baino gehiagok. Balada honen aldaera gehienetan, ordea, Manuel Lekuonak bildutakoa izan ezik, hiru ahapaldi bakarrik aurkitzen ditugu. Bi ahapaldi berri hauek, beraz, gure arteko aurkikunde txiki bezain baliotsuztat hartu behar dugu. Paper solteko orrialde osoko zehaztasunak hauek dira:

Ceci n'est pas de ma famille j'ai toujours été curieuse ou ça se passait peut-être dans la Soule

Oi Larrondo  
Oi Larrondo  
Balinbazinu alaba eder ongizko  
Mairu herrira zaltzeko  
  
Zaldu ninduzun dirutan  
Dirua ere urhetan  
Pissu nuen bezenbat urhetan  
Eta zilhar espata batetan  
  
Oi Larrondo  
Oi Larrondo

Chanté sur un joli air de cor de chasse un peu triste

Respectueses salutations  
Une vieille bascophile  
MTL

Testuaren eskuinaldera goitik behera azalpentxo hau dakar *Mairuyak c'était les moures*. Jatorriz, guk irakurtzen dugunaren arauera azalpena honela transkribatuko genuke: *Ceci n'est pas de ma famille j'ai toujours été curieuse ou ça se passait peut être dans la Soule*. Nola ulertu beharko genuke frantsesezko testua? Hau ez da neure familiakoa (*Ceci n'est pas de ma famille*) dioenean, kantua ez

duela batu familian edo kantuak dioena ez dela familian gertatua? Bi aukera horietatik bigarrena izan behar duela dirudi. Emakumeak gertatzen denaren berri jakin nahi izaten duela dio eta Zuberoan gertatu izan bide dela kantuko gertaera. Paper solte hau alderdi batetik bakarrik transkribatu dugu. Paper honen kopia digitalizatu bat Euskaltzaindiko egoitza nagusiko Azkue Bibliotekan datza.

#### 4. LAFITTEREN ALDAERAREN TRANSKRIPZIOA

Eskuidatziaren lehen transkripzioa egin dugu. Aldaera hau transkribitzeko orduan ematen den zehaztasunak zer pentsatua eman digu. *Chanté sur un joli air de cor de chasse un peu triste* horrek zer esan nahi ote du? Baliteke bere doinutik aldatua izatea kantua. Diogunaren arrazoi garbiena da bere neurri naturaletik aldatuta egotea. Atal honetan bertan ikusiko dugunez, ez zaizkigu koplaren silabak ondo ateratzen. Baliteke, modu horretara, errezitatu gisako zerbait izatea berriemaileak eman zuen doina. Atal honetan zer dagoen soberan aztertzen saiatuko gara. Atal hau, beraz, baladaren jatorrizko bi ahapaldi finkatzeko saio bat izango da.

Atal honetan bertan balada gaurko grafiara ekartzen saiatuko gara. Horretan hasi baino lehen egin dezagun funtsezko galdera bat. Nongoa ote dugu testua? Emakume transkribatzaileak *Soule*, hots, "Zuberoa" aipatzen du, baina ez dirudi Zuberoakoa dugunik. Zuberoa emakume transkribatzailearen lurraldea da, itxurak direnez. Zuberoako euskaran balego *diru* baten lekuan *dihariü* ikusiko genuke *ongizko/ongisko* forma ez genuke, *ninduzun* baten lekuan *nündüziün* izango genuke. Balada honetako lekukotasun gehienak nafarrak dira bat izan ezik. Humboldt-ek Harrambiletan ahotik bildutakoa Itsasukoa, Lapurdikoa da. Gure eredu honetako *ongizko* forma behin bakarrik dokumen-

Ceci n'est pas de ma famille  
j'ai toujours été curieuse on ça se  
paraît peut être dans la saule

Oi Larranda

Oi Larranda

Balintzium alaba eden ongizko  
faiu berrira zaltzeko

Zaldun

diriptan

Zaldun ninduzin ~~urbetan~~

Dinua ere urbetan

Pisu nuen bezenbat urbetan  
eta zilban espata katetan

Nainyak e laot les mours

Oi Larranda

Oi Larranda

chanté sur un joli air de Cor-de-chane  
un peu triste

respectueux salutations

Une vieille basco-phile

M. L. L.



tatzen da euskara klasikoan *Jesus-Christo gure Jaunaren Testament berria. Lapurdico escuaralat itçulia* lanean, Baiona, 1828. Gure eredia, beraz, ez ote da Lapurdikoa?

Transkribatzeko orduan bi irizpide izan behar ditugu kontutan euskara eredia, batetik, eta, kopla-lerroak nola lerrokatu, bestetik. Koplen egiturari gagozkiola, Oihenartek ematen digu argirik handiena bere *L'art poétique basque* lanean, hona Lafitteren transkripzioaren puska bat:

Il y a Une forme de quatrain <s> que a esté, a mon opinion, propre et particuliere a nos basques. Car le ne trouve pas quelle ai esté pratiquée aux autres langues [...] celle au il a trois Uers d'Une mesme Rime a scauoir Le premier, le deuxiesme Et le quatriesme, et le troisieme n'a point de rime. Vous en verrés la preuue en La chansoin d'Une fille nauarroise nommee Emilia, de laquelle Un more estan amouraché, Il lachepta a pris d'or

Andr' Emili 'andre gora,  
Ecin diro oguiric <orha< ora  
Artoric jorra hain guti,  
Bihoa mairu herrin gora.

Saldu nind [...] saritan  
<aski s... illissible...>  
Asco sari... handitan  
<hoguei> ehun p'ïçu Urhetan, eta  
<Lauroguei> Berrehun dup'a Estitan

Aita nuen salçale  
Ama diru harçale  
Anayeric chipiena  
Mairuetaric <k'ençale> guençale

Le premier quatrain est de Uers feminins de huit syllabes Et les autres deux sont de Uers glissans de sept syllabes Cette façon de rimer est entille, det IUsage en doit estre conserué.

Oihenarten pasarte eder honek emango digu Lafitteren aldaera tolesteko bidea. Hartara gure bigarren ahapaldia nola tolestu behar dugun argitzen digu. Ez dago dudarik 8 A/ 8 A/ 10-/8 A eredia dugula. Guk bigarren ahapaldia honela tolestuko genuke, beraz:

Saldu ninduzun dirutan,  
dirua ere urhetan;  
pisu bezenbat urhetan eta  
zilhar ezpata batetan.

Oihenart zuberotarrak Zuberoakoa ez zen kantu bat transkribatu zuen, *nauarroise*, hots, nafarra edo nafartarra. Ez dugu dudarik egin, era berean, kopula delakoa hirugarren kopla-lerroan jarri behar dugula. Halaxe agertzen da Oihenarten ereduko bigarren ahapaldian ere. Hirugarren ahapaldiak hamar silaba izateko *nuen* laguntzailea soberan dugu. Bide horretatik jokaturik lehenengo ahapaldia honelaxe egingo genuke:

Oi Larrondo, Oi Larrondo,  
al(h)aba eder ongisko;  
balin bazindu alaba eder  
mairu herrira saltzeko.

Lehen ahapaldi honetan kontuak ez daude aurrekoan bezain argi. Bigarren ahapaldia transkribatzeko orduan *nuen* aditza kendurik ondo ateratzen zitzaizkigun kontuak. Oraingoan ordena aldatu beharra izan dugu. Bestela esan, ditugun hitzekin 8A/8A/10-/8A eratzten ibili gara. Baliteke batentzat baino gehiagorentzat gehiegitxo aldatu izana, baina bigarren ahapaldiak bidea emanik halaxe tolestera behartuak egon gara.

Grafiari gagozkiola ez dugu dudarik izan, *zaltzeko*, *Pissu* eta *espata* direlakoak *saltzeko*. *pisu* eta *ezpata* bihurtzeko. Era berean, *zilhar* eta *urhe* horiek alaba *al(h)aba* egitera bultzatu naute.

Oi Larrondo, oi Larrondo,  
al(h)aba eder ongizko;  
balin bazindu al(h)aba eder  
mairu herrira saltzeko.

Saldu ninduzun dirutan,  
dirua ere urhetan;  
pisu bezenbat urhetan eta  
zilhar ezpata batetan.

Oi Larrondo, oi Larrondo

Horra, beraz, gure baladaren transkripzio saioa. Gure eredu honek, bere laburrean, hainbat misterio eskaintzen ditu. Zer edo nor ote da *Larrondo*? Aurrekoetan ditugun aditz-pertsonak ez dira gurean agertzen *saldu ninduten* edo *saldu nintzen* aditzak ikusi beharrean *saldu ninduzun* agertzen da. Sujektua, beraz, beste bat da *baldin bazindu* horretan agertzen den bera.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Patxi Altuna: “Leizarragaren zenbait izen sintagma” in *Euskera*, XXVIII (1983-2) 463-473 or. Hona guri dagokigun pasartea: “Diodan oinarri gisa, guztiok nik baino hobeki dakizuen arren, gaztelerazko eta hizkuntza gehiagotako, baita latinezko ere, esan moldeak biziki arriskugarri direla puntu honetan euskaraz adierazi nahi ditugunean. “Una botella de vino”, alegia, ez da euskaraz beti modu berean esaten. Inork hori eskatzean *botila bera* nahi baldin badu, nahiz eta hutsa, hartan, esate baterako, tomate zukua sartu edo gorde nahi duelako, orduan euskaraz *ardo botila bat* eskatu behar du. Ostera, botila bera ez, baizik botilak hartzen duen adina *ardo* nahi badu edateko, orduan *botila bat ardo* eskatu edo esan behar du dudarik gabe eta hari bost axola zaio botilan eman beharrean, dendariak pitxarrean edo txarroan ematen badio. Lehen kasuan *ardo botila* hitz kon-

Oraingo eredu honetan, bestalde, beste inon agertzen ez den elementu baliotsu bat daukagu: *zilhar ezpata batetan*. Objektu edo gauza baliotsu hori beste ereduetakoa *laurogei/berrehun dupha eztitan* edo *berrehun dupa eztitan* edo *bi kupel eztiatan* edo *zazpi kantaro eztiyatan* horien lekuan dago.

## ONDORIO BEZALA

Balada gai beraren bi eredu eskaini ditugu lan honetan. Bi ereduek, argi eta garbi erakutsi dugunez, ezagutzen ditugun gainerako beste hirurekin antzekotasun handiak dituzte. Orain arteko lau ereduei bat erantsi eta beste bat bere jatorrian zen bezala eskaini dugu. Gure euskal balada bilduma ez da baladazale askok nahi genukeen bezain aberatsa. Bi eredu hauek finkatzean hondar ale bat erantsi nahi izan dugu geure geure balada bildumari

posatua litzateke; bigarreanean, aldiz, izen zenbakaitzeko kantitate perpausa genuke aurrean. Batari eta besteari dagozkion galderak ere ez dira euskaraz berdinak; lehen kasuan *nolako botila?* Galdetu behar lioke bezeroari ongi entzun ez duen dendari gorak; bigarreanean, aldiz, *zenbat ardo?*

<sup>2</sup> Ez dago dudarik *bi eztitako kupeletan* esapidea ondo dagoena. Ondo dago baina beste zerbait esaten da, hori da kontua. Eztitan saldu beharrean kupeletan saldu zela, alegia,

<sup>3</sup> Joseba Andoni Lakarraren bi artikulu baditugu honen gainean. Lehena “Oharrak zenbait arkaismoz” in ASJU XVII, 1983, 43-68 or. eta “Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de “Urthubiako Alhaba” in ASJU, XLII-1, 2008, 83-100 or.

# Suge larrua

Ikerrek ziatzeko joera zeukan, begirada atzerantz jo eta iraganeko gertaerak xehe-xehe aztertu eta elkarriz jostekoa. Ostiral arratsalde hartan bulegoko zeregin guztiak beteta zeuzkalarik eta asperdurak jota egunkaria errepasatzen (goizean irakurritako albiste berberak berriro ere irakurtzen) ziharduelarik, lagun batekin izandako adiskidantza gogoratzeari ekin zion. Asteko azken orduetako bulegoak saski-naskiaren itxura zeukan, gauza erdi nahasiz betea, baina baita sententzia jelatuarena, epe bukatuarena ere, aulki hustuekin, sabaiko zein hormetako kare hil kolore harekin (inoiz baino kare hilago zirudienarekin) eta ate atzean erarik hierarkikoenean zintzilikatutako jaka zein soingainekoe-kin. Arrats beheak errezelen pleguekin bat zetorren dekorazioa are gehiago zaharkitzen zuen. Zigarro ke zupada sakonez, ahokada nagiez eta han propio jarritako kafe makinatik atera zuen ebakiaz, ordu haiek aproposak iruditu zitzaizkion Ikerri Iñaki lagunaz oroitzeko.

Koadrilan genbiltzanean, orduan, Iñakik Kar-mele emaztegaia zeukan (gerora emaztea izango zuena eta bere bi semeren ama), ni, berriz, Sararekin nenbilen. Alai zen, txapelketetara eta apustu-  
tutara emana, gorputz gotor eta sendokoa eta zeuzkan giharrez harro zegoen. Agian horregatik erakusten zituen uda nahiz negu izan, beti bai-

tzeraman mahuka laburreko alkandora gorputzari estu-estu itsatsita, gorputzaren tolesak eta erliebeak modurik doienean markatzen zizkiona. Zinez haragizko zigilua zirudien eta bere itxura osasuntsuari umorea gehitzen badiogu, erraza da ulertzea emakumeekin zeukan arrakasta. Garai batean hiru astean behin emaztegaia aldatzen zuen eta kontua zen egoera ezegonkor horretan ere garaile irteten zela, hots, ezkongai-harreman guztiak bukatzen zirela iskanbilarik gabe, itun baten amaiera sinatzen den bezalaxe eta hasierek beti zutela gar eta berotasun berbera, aurretik ezer gertatu izan ez bailitzan. Horregatik koadrilako gainontzeko mutilek miresten genuen, ikono edo idoloa zen guretzat, urrutira gabe gu ez ginelako gai horrelako harreman sortak aurrera eramateko hain modu perfektuan eta zorionekoan. Horretaz gain, bestelako indar erakustaldietarako joerarik bazeukan, nabarmen eduki ere. Adibidez, txangoetan mendira joaten ginenean, lurrean etzandako enborrak besoetan aise eramaten zituen edota zuhamuxkak orpotik erauzten saialdi bakarrean eta bidaietan maletak (hiru eta are lau ere) mahats mordoak bailiran garraiatzeko gauza zen. Guztia, ordea, ohartaraziz bezala egiten zuen, keinu mehatxagarritz. Horrek, batetik, gazte itxura ematen zion eta, bestetik, gizonago bihurtzen eta gutariko asko bat gentozen

pentsatzean emakumeak erakartzeko trikimailuak baino ez zirela. Beste batzuk, berriz, traza handiko portaera horien atzean zerbait ezkututzen zuelakoa zeuden.

Iñakiren molde edota forma adoretuak zirela-eta, Xanti, Josetxo edo Jeronimo kikildu egiten ziren, txiki konplexua sentituz, ni, oster, sorbaldak betiko neurrian mantentzen saiatzen nintzen. Kepa, aldiz, putinka hasten den zaldiaren gisara jartzen zen, ahotik bitsa zeriola, eta horrelakoetan tonuz kanpoko egoerak bizi izan genituen. Bazen esaten zuenik Iñaki zain bihurrikoa zela, guztiak menperatzeko, azpiratzeko jaiola zela, odolean zeramala grina hura eta jaidura oker hori disimulatu asmoz harroxko-morroxkoaren itxura baliatzen zuela. Baina hauek guztiak interpretazioak edota aieruak baino ez ziren. Egia zera zen: kemenaren beste aldean herra zegoela, galtzen ez zekielako. Desadostasun edota ezinikusi ñimiñoena izanda ere, beti ordaintan itzuliko zizun itzuli beharrekoa, urte luzeak igarota ere, horregatik ni beti ahalik eta ondoen konpontzen saiatzen nintzen. «Ados, Iñaki?» galdetzen nion eta berak «Bai, ados Iker» erantzuten zidan gehienetan. Horregatik eztabaiden ostean elkarri luzatzen genion eskuak, horregatik jokatzan nuen berarekin hain zorrotz edota, behintzat, hori uste nuen.

Iker oroitzapen edota pentsamendu horietan zebilela, Katy lankidea hurbildu zitzaion. Eraikinarren hirugarren solairuraino jaitsi zen paper batzuen bila, handik hamargarren solairura bidali zuten paper berberengatik eta helburua lortuta, hamazazpigarren solairura abiatu zen, non Iker adigalkor eta bere baitan bildutako bat ukalondoak mahaiari bermaturik eta gorputza mahairantz makurturik eserita baitzegoen.

–Bulegoz betetako eraikinek amaigabeak ziruditek –atera zitzaion Katyri ia arnastuka zetorrelarik. –Gainera, ostiral bateko azken orduetan ditxo-

sozko paper batzuen bila hoala, askozaz labirintoe-gia duk –jarraitu zuen esaten.

Gero, hustuta zeuden hainbeste aulkiren artean bat hartu eta Ikerren aurrean jarri zen, ofizioz zein afizioz oso ohituta zegoen jardunean: hariari tira egiten.

–Beti bezala, hire simetriak eta paralelismoak ehotzen, armiarma sare bera hire hatzen artean nahaspilatu arte –ondorioztatu zuen, Ikerri erretzen ziharduen zigarroa hartu eta zupada arina emanaz. –Oraindik ere sinkronietan sinisten duk, ezta?

Ikerrek ez zuen fitsik esaten, ez zitzaion ahotik hizkirik jaulkitzen, barne kezkek artean bahiturik zutelako edota Katyren hitz jarioari bat-batekoegia zeritzolako, zeren Katy lankiderik estimatuena baitzitzaion, norbaitengana joan behar bazen laguntza eske Katyrengana joango zen, hori inolako ezbairik gabe. Ikerren mututasuna mozteko Katy honela zuzendu zitzaion:

–Baina gutxienez gure arteko sintonia ez zegok apurturik, ez duk hala? –eta ahoa zertxobait zabalik utzi zuen, keinuren baten beharrean zegoela era bizian adieraziz.

–Gauzak gertatzen ditun gertatu behar direlako, ezin ditun ekidin –erantzun zion hitz bakoitza lehor-lehor ahoskatuz, sententziekin edota axiomekin jasotzen den bezalaxe.

–Baina gauza edota gertaera bakoitzari esanahiren bat aurkitu nahi edo behar hori, arrastoren atzean arrastaka ibiltzea, hain menpeko edo esaneko, nahikoa duk –aurpegiratu zion.

Izan ere, Iker beti zebilen sintoniak eraikitzen, horregatik zuen hain gogoko hiritik zehar paseatzea. Orduan jartzen zituen gogoaren paperetan, marrazkilari lineala bailitzan, hiriko plano eta sekuentzia desberdinen arteko elkarrekikotasunak. Zotz bat hortz artean zebilkiola eta leihatilatik begira, ez zegoen hiriko detailerik bere sistematik kanpo geratzen zenik.

Urte batzuk beranduago ere Ikerrek jarraitzen zuen gogoratzen Iñaki zein eskuzabala izan zen lagunekin, aldi askotan zehar izan ere. Behin lanbide heziketa ikasten zihardutelarik, ikasturte amaierako jairako mozorro bat utzi zion Iñakik Ikerri. Honek bere aldetik bazeuzkan batzuk hiriko inauterietarako erabili izan zituenak eta arropa zaharren armairutik ateratakoak, adibidez, gurasoen zein aiton-amonen ezkontza trajeak. Gainera, denboraren poderioz jantzi hauen mahuken eta eskoteen parpailek sitsek eta beldarrek janda ziruditen eta josturak altsituak zeuzkaten. Honek guztiak mozorroago egiten zituen, sonanbuluago. Izan ere, botoiak guztiz hezurmamituak eta sorbaldak zein gerriak markatuak dauzkan trajeak, itxurosoa denak, ez du balio inauterietarako. Ikerrek mozorroetarako jantziak bazituen ere, Iñakiren proposamenari men egin eta honek luzatu zion mozorroa jantzi zuen, nahiz eta ados ez egon. Bere burua ispiluan ikusi bezain laster, kolpe latza jasan zuen. Ukabilkadaren ondorioz ispilua ere konkortu eta ubeldu zela iruditu zitzaion udaberriko goiz hartan eta arrakaletatik odola zeriola, zilarbiziarekin bate-ratsu. Betazalak igurtzi zituen birritan aurrez aurre zeukana egia ote zen frogatzeko, mozorrotuta egonda ere, bera ote zen egiaztatu ahal izateko. Zalan-tzak izan zituen. Burua handiago, sabela puztuago eta aldakak zabalago izateaz gain, bere pentsamenduari ordenarik gabekoa iritzi zion, ez zuen ohi bezala hausnartzen. Eta honek arduratu bazuen ere, Iñakiren aurrean isildu, burua apaldu eta mozorroa irentsi zuen, igel jokoan igelak txanpontzara irensten duen bezalaxe, ezer gertatu ez bailitzan. Ikasturte amaierako jaira hurbiltzen ari zela, zama nabaritzen hasi zen gainean, oihalaren lodieragatik eta trajearen jauskeragatik ez ezik, barnealdean egin zitzaion korapiloagatik ere. Heldu zenean, hara bildutakoek morroiz, bufoiz edo txorimaloz mozorrotuta zegoela zioten lehenengo gainbegira-

dan eta bigarreanean, berriz, barre algarak edo txantxak egin beharrean, keinu mespretxagarriak jaurtiki zizkioten, deserosoa gertatu izan balitzaie bezalaxe, osin zikin batean erori eta ingurua lohizko zipritzinez zikintzen duen txoritzarra zelakoan edo. Jaiak iraun zuen denbora osoa bazterrez bazter ibili behar izan zuen, aitzakiak asmatu eta gezurrezko eztulak irudikatzearekin batera lekuz aldatzen, ez zelako inon tokikotua sentitzen, eta elkarriketen amaierako hitzetan aterpea bilatzen (ahopean murmurikatuz, bokal itxiak azpimarratuz edo errima bitxiekin jolastuz), ez zetorrelako bat hizpide zeuden gai nagusiekin. Neka-neka eginda bukatu zuen, tente egotera ere iristen ez zelarik, ez mozkortuta zegoelako, baizik-eta giroa eta bere gorputz propioa ere jasangaitzak egin zitzaizkiolako. Bai erori ez erori zegoelarik, hurbildu zitzaion Iñaki aretoaren erdigunetik eguzkiz mozorrotuta, nabarmen. Eguzki izpi bat ezpata bailitzan buru gainera erori zitzaionean, Ikerrek Iñakiri begiratu zion irmotasun osoz zerbait adierazi nahian, baina Iñakiren behatu indartsuak Iker menperatu zuen berriro eta azken honek etsita eta aldaroka aldegitara erabaki zuen. «Baina ez ahaztu, zure mozorroa benetakoa da» erantsi zion Iñakik Ikerri eskumako sorbaldan eskua pausatzearekin batera.

Beste batean ere lagundu egin zion. Txango batetik etorriak ziren, kanpamendu batetik, zeharo abailduak (azken egunetako euriengatik lo gutxi eginda) eta zamaz beterik (motxilekin, kanpin denekin eta abarrekin). Hiru orduko bidaia bihurgunetsuaren ostean eta mendi aldapatsurik eta elkarren segidako errepede zati errerik atzean utzita iritsi ziren hirira, gamelu egarberak oasira nola, baina hiria zalaparta betean zegoen (ostiral arratsaldea zen eta futbol partidua zegoen). Autobusaren burrunben artean botatako lo kuluxkak eta bidaiari zehar nahitaez arnastu behar izan zituen puru bafadak ez ezik, futbolzaleen oihuak eta ligatzera atera-

tako neska-mutilen txantxa hotsak ere jasan behar izan zituen Ikerrek. Eramanezina zitzaion hura guztia. Autobusaren zolatik geltokiko nasara igaro zenean, beste mundu are arraroago batean zegoela pentsatu zuen, orduan hasten zela benetako amesgaiztoaren kronika, zeramatzan botak erdi lokaztuta eta apurtuta zeuzkalako. Bi erruri bezala begiratu zien botei. Baina hor ere Iñaki agertu zitzaion, berak motxilan ordezeko gisa zeuzkan zapatak uzteko prest, bera bere buruaz zioen bezalaxe eskuzabala baitzen, nahiz eta akatsekin. Zapatak, itxuraz malguak eta erosoak, ikusi bezain laster, Iker haien oinetara jarri zen, haietan egongo bailitzan etxerako zubia. Iñakik eta Ikerrek elkar agurtu zuten eta nor bere bidetik joan zen. Ibiltzen hasi zenean, ordea, ohartu zen erabili ohi zuen zapata zenbakia baino bi txikiago izateaz gain, deserosoak eta gogorrak zirela barrutik, zapata orkoi hutsak. Kalez kale arrastaka, ospelez eta zauriz josita iritsi zen etxera, oinetako azala zapata larru eginik eta puskaka hortik zehar utzirik. Bi asteen gelditu behar izan zen etxean atera ezinda.

Orain seme-alabekin dagoenean, gogoratu ere egin da Iñakiz, nahiz eta zergatik gertatzen zaion hori ez jakin. Larunbat arratsaldea da eta emaztea eta seme-alabekin batera hirigunerantz doa. Jendez eta hotsez mukuru, ez daki zehazki zer egin, kafe-tegian edo zinean sartu, ibilaldi bat egin parketik edo merkataritza gunetik. Agian hain zalantzakor dagoelako behar ditu Iñakiren erabaki irmoak.

Emazteari ere galdetu dio noranzko asmoa duen, baina honek sorbaldak goratu eta oin puntekin asfaltozko baldosen gainean zirriborro batzuk baino ez ditu egin. Eskumazko eskuaz Aitziber oratzen duelarik eta ezkerrekoaz, berriz, Joseba, kartel baten aurrean geratu da. Narrasti batzuk ageri dira, zehazki esateko, iguana erraldoi bat, basilisko bat, bi kameleoi eta suge bat, guztiak erdi nahasian. Adi-adi gelditu zaizkio begira. Bizi-biziak dirudite.

–Gizarte gaiak lantzen dituen pelikula izango da, ziurrenera ere –esan du emazteak. –Poliziako kutsukoa –erantsi du segidan.

Ikerrek ez dio ezer esan emazteari, nahiz eta jakinaren gainean egon kartelak iragartzen duena ez dela pelikula, erakusketa baizik. Narrastien bila-kaera zeinen bitxia den ikasteko eraman nahi ditu seme-alabak erakusketa horretara? Ikerrek burua nahasita dauka, hori bai nabari duela eta baita kometa baten pareko argi batek burmuina zeharkatzen diola alderik alde eta larru antzaldutua daukan argi horrek bideratu duela aipatu erakusketara. Gogor estutu ditu seme-alaben eskuak, baina bere eskuak (eta baita bihotza ere) eta burua norabide desberdinetarantz abiatuak dira. Azkenean, emaztea jabetu da erakusketa dela eta ez pelikula.

–Erakusketa hau destolestutako liburu bat bezalakoa izango da –jaulki zaio Sara Ikerren emazteari.

Ikerrek ez dio ezer erantzun, nahiz eta sarreraren zirrikitutik bizi-bizirik dagoen aspis sugedorri bat ikusi duen. Leihatilan jasotako txartelak atezainari eman dizkionean, honek harridurazko behatua igorri die Ikerri eta Sarari eta geroxeago bost eta sei urteko umeei. Ikerrek are gehiago estutu ditu seme-alaben eskuak. Sartu bezain laster, Sarak oihu txiki bat jaurtiki du.

Erakusketaren lokalean, nahiz eta giro tenperatura egokia egon, Ikerrek, Sarak eta hauen seme-alabek hotzikarak dauzkate, etengabeak dira jasadako barne inarrosaldiak, batez ere, bizkarrezurretan (oinaztarrien parekoak) eta barailetan (mahats gordinak eta limoiak murtxikatzen baileuden). Hagitz gogorra egiten zaie injekzio hipodermikoaren moduko ibilaldi tentso hori, heriotza zigorren sententziak exekutatzen diren gelen antzeko espazio isolatuetan daudelako sentsazio hori. Gogorra eta eramangaitza zaielako hortzak hirrikinarazi eta gorputz azalean zehar azkurak dauzkate, kapusai-

karrasken modukoak. Hori gertatzen zaie sugeen mihi zatibituak, kameleoien begi puztu bezain birakariak edota basiliskoen gorputz adarrak ikustera-koan. Kristalezko kaiola bakoitzaren behe aldeko azalpenak irakurtzerakoan, ahoskera jelatua ateratzen zaie eta maiz hitzen erdibidean geratzen dira, bukatzeko gogorik ez dutela.

–Txarrena narrasti begetariano hori da! –irten zaio barren-barrenetik Sarari. –Harrapari alaena! Hosto batek ez luke bi minutu ere iraungo bere ondoan! Eta harraparia izateaz gain, harroa, ikustazue nola erakusten dituen sexu organoak eta nola eragin eta mugitzen duen buztana era probokatzaillez. Mota horretako narrastiek daukaten jarrera ere honen guztiaren ondorioa baino ez da: ondorengo luzea izaten dute Lur Planetan euren biziraupena ziurtatuta edukitzeko, jaraunspena belaunaldiz belaunaldi zehazki ematen delarik. Izan ere, samurtasun osoz laztandu eta zaintzen dituzten euren kumeak handitan progenitoreak baino harrapariagoak izaten dira. Eta horrela, gizaldi eta gizaldietan. Eta harrapariak izateaz gain, igokariak eta sasi ekologiko-berdeak ere badira, mihuraren kideak.

Narrasti begetarianoarenganaino luzatuta daukan begirada keinu atzaparkatu batez uxatu du Sarak, nazkaz eta amorruez. Hipnotizatuta bezala jarraitu dio sendiak Sararen ahotsari. Segidan, tankeak bezalako hortzak daramatzen masailezur zabal-zabala eta gandor latza dauzkan eta gorputz astuna sostengatzen duen harrapariarekin egin dute topo. Ikerrek narrasti horrek kanpoaldeak horrelakoak baditu, barnealdea nolakoa izango ote den pentsatzeari ekin dio eta nahiago izan du erantzunik ez jasotzea, batez ere, umeak aldamenean dauzkalak. Arratoi-pozoi usainik ere antzeman du, baina ez du ezer esan. Gero, zaindarien errezeloz begiratzen dutela ohartu da, agian ibilaldiaren mantoagatik (kaiola bakoitzaren aurrean hainbat minutu

ematen dituzte, narrasti bakoitzaren heste argal zein lodietan, biriketan edota burmuineko kirioetan induskatzen egongo bailiran), agian gogoetatsu daudelako (sailkapen zientifikoez fido ez eta beste arrazoi batzuen xerka ibiliko bailiran), agian bost eta sei urteko umeekin horrelako erakusketara joateari ez deritzotelako egoki. Ikerrek berak ere ez daki zertarako eraman dituen hara, agian Lur Planetan dauden espezie eta arraza guztiak ezagutu nahian, ohi kanpoko aisialdia egiteko, umeei txikitatik bizitzaren ifrentzua zertan den erakutsi nahi izan dielako... Baina susmatzen du gauza hauek guztiak aitzakia merkeak baino ez direla bere burua zuritzeko, familiaren aurrean ahaltsu eta izukaitez agertzeko edota... Ziurra duen gauza bakarra da Iñakiren itzala harlauza bat bezain pisutsu nabaritzen duela. Guztiak zurbil-zurbil atera dira erakusketatik.

Mozorroaren tamaina hura eta zapata haiek eragindako zauriak baxuerliebeak baino ez ziren Ike-rreren gogoan, horregatik, nahiz eta eraman hilabete batzuk Iñaki ikusi gabe, berarekin oroitu zen udako goiz hartan. Zauriak zauri, ez zion herrarik gordetzen, horregatik udako oporretara zihoazela, automobila ez zuela martxan jartzea lortzen konturatzean, Iñakiren izena hurbildu zitzaion, ez bat-batean eta bere betean lagun minen oroitzapenekin gertatu ohi den bezala, ia errebelazio eta salbazio modura, baizik-eta oin puntetan, iradokizun eta aukera gisara. Berrero saiatu zen automobila martxan jartzen eta horretarako giltza barrurantz tinkatuta sartu zuen motorraren erraieraraino heldu nahirik, kilimaren bat eragiteko asmoz abiatze sisteman. Burrumba herabe batzuk atera ziren kafesne egin berriko kizarako hodeiak bailiran eta Ikerrek lasaitasunezko eztulekin lagundu zuen arrakasta txiki hura, arretatik ospakizunetik baino gehiago zeukaten eztulekin. Emazteak irakurtzen ziharduen aldizkaritik jaso zuen begirada eta umeak adigal-





kor egotetik oharkor egotera igaro ziren. Jarlekuan tente jarri, ziurtasun uhala egokitu eta bolanteari gogor atxiki zitzaion, pneumatiko usain bortitza zerion eta olio orbanez jositako aparkaleku erdi hustuari azken begirada botatakoan. Aparkalekuko beheko solairua, bigarrena eta lehena ia osoa zeharkatu zituen, baina kanpoalderantz zihoala, ziplo geratu zitzaion, ez aurrera ez atzera eginez. Birao borobila jaurtiki zuen, ozen durundatu zuena, eta jarraian automobiletik irten zen sekulako ate kolpea propinatuz. Orduan jabetu zen benetan automobil hura hezurdura eskasekoa zela. Metro batzuetara kokatu eta erdi gangster erdi zirujau modura egon zitzaion zelatan eta gogoz barruko pieza guztiak arakatzen eta disezionatzen. Koka-leku horretan zegoela, emaztea eta umeak ere aztertu zituen. Sara urduri zebilen txiklea tinko murtzikatu eta puxika handiak puzten eta leher-tzen, aldizkariko orrialdeak arin igarorarazten zituen bitartean. Josebak eta Aitziberrek, berriz, ika-mikan ziharduten, nahiz eta ezin zezakeen asmatu zertan zen afera. Gauza bat apurtzen denean, era kateatuan denak apurtzen direla ondoriozta-tu zuen amorratuta.

Automobilean sartu eta ezer esan gabe leihatila jaitsi, ukalondoa bermatu eta zigarro bat pizteari ekin zion. Eta gero beste bati. Ezer adierazteke automobiletik atera, kapota altxatu eta lozagia eta bateria ikuskatu zituen eta, bide batez, baita karbu-ragailua eta alternadorea ere, hortz arteko zotza ezpal ezin meheago bihurtuta zeukalarik. Gogoz kontrara isil-isil itxi zuen kapota, ohartu baitzen Sara, Joseba eta Aitziber lo zeudela. Urduritasuna-ren urduritasunaz eta zeozer egite hutsagatik gaso-lina-tangari eta katu mekanikoari gainbegirada bota zien.

Berrito automobilean egokitu zen. Bere burua erlaxatzearen erdi etzanda jarri zen jarlekuan fami-liaren loaren eta zigarro piztu berriaren ke multzo-

aren artean. Erosoa iritzi zion automobilari, egon-gelako sofa edota logela. Horrela zegoelarik, Iñakiri deitzea erabaki zuen:

–Bai esan, aspaldiko! –agurtu zuen Iñakik beso zabal.

–Ikustak, oportetara gindoazela, automobila apurtu zaidak. Gauza larria ematen dik eta garajera eramango banu, ziur egun batean edo bitan han utzi beharko nuela. Autobusaren, trenaren edo hegazki-naren aukera ere hortxe zegok, baina tira, gidaria-ren papera hartua diat duela denbora asko eta...

–Ondo egin duk, lagun zaharrak horretarako gaudek-eta. Oraintxe bertan abiatuko nauk hire aparkalekura, ordezeko automobil bat badiat-eta.

Adierazi bezala han agertu zen, dei horren zain egon izan bailitzan, mandatari prestu. Aurreko argiak piztuta, klaxona jotzen eta arranditsu iritsi zen. «Bere estiloan» pentsatu zuen bere kautan Ike-rrek. Agurtzerakoan, ordaintzeko orduan txanpon pila ematen den moduan luzatu zion eskua, baina lker ez zegoen interpretazioetarako, ezta hermeneu-tiketarako ere. Beraz, Iñaki heldu zen bezala urrutira-tu zen, ziztu bizian, ezer komentatzeko denbora-rik izan gabe.

–Esnatu eta atera zaitezte automobiletik! –agin-du zien emazte eta seme-alabei.

–Helduak gara herrira, jaietara! –oihu egin zuen Josebak bozkarioz.

–Bai, hori ematen du –jarraitu zion Sarak ahots erdi lokartuaz eta aharrausien artean-. Entzun berri ditut karrozetako klaxonak, elkarren segidan entzun ere. Eltzagorrek eta panderetak. Dena parpaila eta estreinaldi.

–Ez gara inora iritsi, abiapuntura ez bada. Alda zaitezte automobilez lehenbailehen, ordubeteko atzerapenez gabiltza-eta.

Nekearen ostean saria eta garaikurra datozelako ustean eta harro, automobil berriaren idulki baten gainean bezala zihoazelako, lasai irten ziren hiritik:

Iker urdailean egin zitzaion korapiloa deslotuta; Sara modako abesti bat ahapetik kantatu bitartean, hatz koskorrez leihatilan jotzen ziharduelarik, konpasa eraman nahian eta Aitziber eta Joseba bi maleta bezain arin.

Lehenengo ordu erdian bidaia ondo joan zen, ezer azpimarragarririk gabe. Abiada motelean, hori bai, automobilaren itxura distiratsuaren kontrajarreran, baina besterik ez. Errepideko automobil guztiek aurreratzen zutela jabetuta, abiada bizkortu nahi izan zuten, baina ezin zuela frogatzerakoan, orduan nabari izan zuten Ikerrek eskumako lokian taupada ohi baino ziztatzaileagoa. Eskumako ezpain ertza ere makurtu zitzaion eta hari listua erori. Seme-alabek esana zioten zelaietako traktoreen eta gurdien erritmoa zihoala. Zeramatzen erritmo motela zela-eta, Sarak trafiko zuzendaritzak urtero eta komunikabide guztietan kontuz gidatzeko zabaltzen dituen aholkuak gogoan grabatuta zeuzkalako, ez zuten fitsik esaten. Aitziberren eta Josebaren iruzkinak jolasean zeudenean egin ohi zituzten automobil lasterketei buruzkoak ziren. Ikerri atzean geratzea ez zitzaion, egia esateko, graziaz egiten, baina zuhurtasuna zuten lege. Hori, batetik, eta, bestetik, bere automobilaren apurketagatik eskarmentatuta, Iñakiren automobilarekin arrailtzear den arrautza oskol gisara zihoan, beldur horrekin, misterio horrekin. Dena dela, bestelako susmorik ere bazeukan, laster konturatu baitzen abiadura kontu horrek ez zuela zer ikusirik bere nahia eta borondatearekin (birritan zapaldu zuten azeleratzailea). Harresi baten modura sentitu zuten galgaren arazoa eta elur-jausi bat erori balitzaio bezala gelditu zitzaion begitartea, zurbil-zurbil. «Abera gisara hesitua eta, gainera, ahaleginak egiten eta nekatzen, zelofanez bildutako tramankulu baten barruan, hau artikulatu nahirik» pentsatu zuten etsiturik berekiko.

–Ez joan tentsioan, laztana! –esan zion emazteak bere zurbiltasunaz oharturik. –Badakit askotan

mantso eta kontzentratuta joateak ahalegin handia eskatzen duela.

–Ez arduratu, pasatu egingo zait-eta.

Abiadura gelditasun hura, gainera, ordu erdi baino ez zitzaion iraun, lehenengo bihurgune itxia hartzera zihoala, aurreko kolpe-leungailuak harkaitz baten kontra jo baitzuen, txiki-txikituta geldituz, ezpain arrakalatu eta odoleztatu gisara. Fokuei ere eragin zien.

–Akabo jai kontuak! –atera zitzaion borobil-borobil Sarari foku erdi itsuez pentsatzean.

Umeak ere goibel geratu ziren, jostailua apur-tzen zaienean bezala. Ikerri min gehien ematen ziona automobila markatuta geratzea zen, kalean herrena edo konkorra nahitaez norbait seinatua den bezala. Isekagai izatea, zama hori eraman beharra. Erdi itsu, erdi zirpilduta, automobila beste ordu erdi bat iraun zuten eta horrela haiek ere ordu erdi batez jarraitu zuten gogo motel, haraino eramaten zituen garraio-bidearekin joko eginez edo.

–Niretzat mendi hori ez da berdea, erreka hori ez da gardena, ezta zeru puska horiek ere urdinak –esan zuten atsekabeturik Sarak. –Margulduta daude.

Eta ikuspegi hura ekidin nahian, eguzkitako betaurrekoak jantzi zituen. Ikerri pena eman zion Sararen aitorten hark eta egoera zertxobait apaindu guran haizetakoa eragin, kristala oihalaz igurtzi eta keinu leun batez eguzkitako betaurrekoak erantzi zizkion, nahiz eta susmatzen zuten kontua askoz sakonagoa zela.

–Irakurtzen ari garen komiki hauetako paisaiekin alderatuz, kanpoko hori askoz lausotuagoa da, ez da, behintzat hain bizia –iruzkindu zuten Aitziberrek.

Eta oharpen hark bazeukala bere egia ondorioztatu zuten Ikerrek, uda minean eta bero sapa egonagatik ere, egurats lurruntuak paisaia urrutiratzen baitzuen. Jarraian, nahiz eta zuhaitzak eta loreak ez

zituen gogoko (ez behintzat farolak, erratzak eta zutoin elektrikoak baino gehiago), begi niniak hosto-  
toen, mendi tontorren, hodeien silueten eta zehar-  
ka-meharka zihoazen erreken artean sakabanatu  
zituen.

Gida turistiko horretan murgildurik zeudela eta  
aldapa beheara zihoazela, automobilak hiru jauzi  
egin eta ihes tututik beste horrenbeste ez tul modu-  
ko jaurtiki zituen. Jarraian, hondoratu bezala egin  
zen. Ate danbada bat emandakoan, automobiletik  
jaiñsi eta aurreko gurgilak zulatuta zeudela ohartu  
zen. Xafla metalikoari amorruzko ukabilkada eman  
zion eta ostiko bana zulatutako gurgilei.

–Ez propinatu kolpe gehiagorik, ez eraman ego-  
era muturreraino –gazitigatu zion Sarak ahots azen-  
tugabe eta hilaz.

Joseba zuhaitz batera igo eta besoak era exage-  
ratuaz eragiten hasi zen, sorospen eske edo, behin-  
tztat, hori antzetzuz. Aitziberrek burutzazio horri irri-  
barrez erantzun zion:

–Ez egin txorimaloarena, jaiñsi mesedez hortik  
–errieta egin zion Sarak Josebari.

Bien bitartean automobilaren inguru-minguruan  
zebilan Iker, noizbehinka begi zeharka begiratzen  
ziolarik, etsai bati moduan. Gurgilak zeharo leher-  
tuta ez zeudenez, zeuzkaten zulo txikiak petatxu  
batzuen bitartez konpontzeko asmoa izan zuen.  
Maletategian gurgilak puzteko gailua eta bolante  
ondoko kaxan petatxuak ediren zituen. «Iñaki beti  
bezain zuhurra eta hornitua» atera zitzaion ahapetik  
irribarre makur batek errailetan hozka egiten zion

bitartean. Gurgilak zailtasunik gabe konpondutako-  
an, ohitura edo erritu bati jarraituz bezala zenbait  
atal ikuskatzeari ekin zion, adibidez, airearen ira-  
gazkiari, norabide zutabeari eta erradiadoreari,  
ahazteke abiatze motorra. Automobilaren barruan  
zela eta eserlekuan egokituta bidaia jarraitzeko  
prest, gurgil koipeztatu berria zirudien eguzkiari  
begiratu zion begirunez (hori ere erritua zen).

–Ordu bete falta zaigu oraindik –murmurikatu  
zuen zalantzen artean automobila martxan jarri  
bezain azkar.

Herrira ailegatzeko hamar minutu falta zirela gel-  
ditu zitzaien osterera ere automobila. Laurok batera  
bultzatzen saiatu ziren, baina ezin. Bihurguneengatik  
eta bero sapagatik Josebak eta Aitziberrek oka egin  
zuten. Nekearen nekez etzanda gelditu ziren ezpon-  
da batean. Sarak zuhaitz bat besarkatu zuen, berme-  
ren bat bilatu nahian edo, ia senetik irtenda. Berriro  
sartu ziren laurak automobilean. Iker berriro saiatu  
zen automobila martxan jartzen. Ez zuen lortu.

Bolantearen ondoan Iñakiren argazki bat zego-  
en. Han ikus zitekeen Iñaki, giharrak erakusten  
zituela irribarre zabalaz, harrotasuna lau haizetara  
hedatuz. Bere barrea entzun ere egiten zen, barre  
sendoa, ahalguztiduna. Ikerrek argazki hura ikusita  
ez zekien zer pentsatu. Ez ulertuarena eginez sor-  
baldak goratu zituen eta gogoratu zitzaion esku  
mardula luzatzen zionean, laguntza emanez.

Automobiletik jaiñsi eta herrira oinez joatea era-  
baki zuten. Ikerrek burua atzerantz jiratu zuen:  
errepideak puskaka eroritako suge larrua zirudien.



CHARLES NODIER

# Nola ezabatu ziren patuesak Frantzian

## Ipuin fantastikoa

Sarrera eta itzulpena: Andres Urrutia



## CHARLES NODIER (1780-1844) eta Frantziako patuesak

XIX. mende hasieran ez ziren oso ugariak Frantziako patuesen aldeko aldarrikapenak. Horietako batek du egile Charles Nodier idazle eta bibliotekaria. Narrazio fantastikoak dira nagusi bere lanetan, baina badago tartean halako adierazpena, Frantziako eskualdeetako patuesak barruratzen dituenak. Ironiaz beteriko testu horretan patuesak bizitzaren adierazleak dira, egundo ere akademiak eta unibertsitateak menderatuko ez dituenak.

Ipuina esamoldez beteta dago eta erreferentzia ugari ditu. Azken batean, Nodier-ek egiten duen deiadar bera egin dezakegu, gaur ere, beste askok:

*Ez jaunak, hizkuntza bat bera ere ez du hilko legeak eta arauak, ikastetxe baten aurrean, urkatuta, ahoa estalita, sasi-jakintsu baten idazmahaiaren gainean zikindutako kondenaioaren pankarta paparrean duela!*

Hona hemen sekula herri zibilizatu bati eman zaion berririk harrigarrietakoa.

Ez da eklipsea, ezta kometa, ezta burrunba egiten duen sumendia, ezta uholdea, ezta munduaren bat-bateko agerketa, *Colonen* Amerika bezalaxe, ezta herri desagertu baten suntsidura ere, *Platonen Atlantidaren* moduan.

Bene-benetan, osterantzeko kontua da: izatez, hizkuntza bat ezabatzea da, gizakiaren elea gorpuzten duen hitza eta adimen esplizitua, hain zuzen ere, beste gainontzeko gizakiengandik bereizteko Jainkoak eman diona, hori berori ezabatzea. Arnasa hilezina da hori, mintzairak eman dizuena, besteak beste, *Restaut*, *Wailly* eta *Lhomondek* ito zutena, unibertsitatearen oniritziari kalterik egin gabe.

*Errektore batek, bi sasi-jakintsuk lagunduta ere, sekula ez du betikotasunera eramango, erregearen edota justiziaren izenean! Hizkuntzak biziagoak dira: ezin dira erail.*

Aipagarria, bide beretik, euskarari eta bretoierari egiten dien erreferentzia, bietan ematen baitu gramatika eta erregelak ondo arteztuta zituztela, ordu-rako, bi hizkuntza horiek:

*Zuen ondoren luzaro hitz egingo da languedocera, zuei hain gutxi gustatu arren, baita euskaraz eta bretoieraz ere. Hizkuntza horiek, ez dakit jakingo duzun, bereiziki dira eta artez moldatutako gramatikak dituzte.*

Erreferentzia gehiago: [www.axsane.fr](http://www.axsane.fr) (La chas-se au patois)

Lehenengo egunetik ez dago jada patuesik Frantziari, hogeita bost milioi frantziar, goizetik gauera, euren ama hizkuntzaz gabetuak izan baitira, zuk eta nik bezala hitz egin dezaten. Laster esango didazue hori ez dela gauza handia, baina, jakina, hori ere hobetu daiteke.

Ez, jada ez dago patuesik. Hizkuntza lau eta goxo hori, amengandik, inudeengandik, jaioterriko gure lehen lagunengandik jasotakoa; hori bera galtzea da kezkatzen gaituena eta deitoratzen duguna, sasi-jakintsuek euren garbizalekeria burlatiarekin eskoletan gure lehen xalotasuna baztertu zutena, hizkuntza polit eta fin hori, hain dotore betetzen zituena hizkuntza ederraren hutsuneak, eta beti zekana berba biziren bat jartzeko moduan, hiztegiaren

baliabideak nahikoak ez zirenean; bada, patuesik ez dago jada.

Eta zuek galdetuko didazue ea hizkuntzetan nor sortu duen iraultza hori, hizkuntzak direnetik bereizita dena? Jauntxo berriren bat al da? *Chilpéric* baino azkarragoa eta boteretsua dena? *Thot* edo *Teutates* ote dira? *Hèrmes* edo *Tismegiste*? *Palamède* edo *Cadmus*? Ez da izango soil-soilean beste *Leibnitz*, edo *Bacon*? Ez da deus ere holakorik.

Cahors barrutiko batzordea izan da, hain juxtu ere, akta baten lerrokada batzuetan erabakia hartu duen agintaria. Cahors, izatez, Frantziako herri bat da, *Quercy*ko aspaldiko hiriburua eta egun Lot departamenduko prefekturaren hiriburua, Errege-azuztegia eta Lehen Auzialdiko Epaitegia dituena. Hamaika edo hamabi bat mila biztanle ditu eta kokapenari dagokionez, gutxi gorabehera berrogeita lau graduko latitudean kokatuta dago. Dena den, Cahors dagoeneko ospetsua da ehun eta oihal lan-tegiagatik, eta pattarrak eta intxaur-olioengatik. Bestalde, trufa gozoak ekoizten ditu bertako lurraldeak, baita ardo beltzak ere, biziki estimatuak, Bordele, Ingalaterra eta Holandara saltzen direnak. Azkenik, hiria *Jean XXII* aita santuaren zorioneko sorterrria da, baita *Clément Marot* jainkotiar olerkariarena, eta Cahors barrutiko batzordekideena ere.

Haatik, gaur Hegoaldetik datorkigu argia. Horra hor zergatik erabaki den Frantzia gehienetan besterik ez egitea Cahorsen frantsesa izan ezik, eta ez dut nahi esan herri xumearen eguneroko erabileran edota aristokrazia burgesari kezka gutxi ematen dioten baserritarren erabileran, baizik eta barrutiko batzordekideen hitzaldi ospetsuen erabileran.

Jakingo banu bestelakorik, zuentzako atsegingarriago izan daitekeenik, asko poztuko nintzateke. Beharrezkoa da, alabaina, oraingoz, honekin aski izatea.

Jende on andana dagoenez gero, fermuki sinesten duena frantses pixka bat badakiela eta horrekin

batera beste hizkuntza batzuk ere, eta makurrik gabe uste dutenak barruti bateko batzorde baten eskuduntzen artean ez dela sartzen hizkuntza bat ezabatzea, nik ezin ditut bazter utzi horien arrazoiak, Cahors barrutiko batzordeak hartutako erabakien aurka, are gehiago batzorde horrek inolako ardurarik ez duenean, aurrera doan arazoa berehala konpontzeko, filosofo greziarrak bezala. Ni oldartzen naiz eta ez dut azterketa honetan ahantzi nahi, halako inpartzialtasun zin-zinezkoa, eztabaida zailetan ohikoa izaten dudana bezala. *Verbum impendere vero*.

“Cahors barrutiko batzordeak, kontuan harturik:...”

Hona hemen nire trikimailuek, Cahors barrutiko batzordea lotzen dutenak hizperri administratibo horrekin, berori sortu baita modurik nazkagarrienean harako patues burokrata baten asmoetatik, *oc* hizkuntzak sekula balioetsiko ez duena. «Zer!» oihukatzen dute, arrazoimenarekin bat ez datorren halako larderia baitute horiek, batez ere hark argudiatzen duenean tesia *ab absurdo* baten aurka, “erreforma egiten ari zarete hizkuntzaren garbitasunaren izenean, eta horretarako, hasiera-hasieratik, solezismo bat egiten duzue, orain dela hogeita hamar urte eskolatik uxatuko zenutena! Edonor da aske pentsatzeko Cahors barrutiko batzordearen boterea arrazoimena baino ahaltsuagoa dela, baina inork ez du eskumenik frantsesez esateko: uste dut Cahors barrutiko batzordeak erabaki ergela hartu duela. Irain bikoitza izango litzateke hori, bata gramatikari egina, bestea kortesiari”.

Eta zer hartu du aintzat horretarako Cahors barrutiko batzordeak, zer uste du berak?

Batzordeak uste izan du patuesa erabiltzeak eragin negargarria zuela frantsesaren ahoskeraren gainean, ez baitzuen onartzen, hainbatez, patuesa zela frantsesaren eta bere erroen arteko arartekorik oinarritzkoena, eta frantsesaren ahoskera galduko balitz,

haren hastapen erregulatuak, egiatan, patuesaren baitan bilatu beharko lirakeela.

Batzordeak uste izan du erresumaren unitate politiko eta administratiboek nahitaz eskatzen dutela hizkuntzaren unitatea alderdi guztietan (hizkuntzaren arloan nahiz erresumarenean!), eta ez du kontuan izan axioma horrek, ausardia handiz ezarritako axioma horrek, ez duela zilegitasunik arbasoen historian, ezta garaikoenean ere; eta mendetan zehar gorenean izan diren *Alexandre, Auguste, Charlemagne* edo *Napoleon* boteretsuenek ere baztertu egin zutela; eta hori egitekotan, egiteko modukoa bazen behinik behin, gizakiaren hitza diktadurarik kirtenenaren zerbitzuan jartzen zuela, harako plazako esaldien eta bulegoko barbarismoen diktaduraren zerbitzuan; edonola ere, hizkuntza-unitate hori, bateraezina zen herri bizien antzemanenezko eraginarekin, jendearen barne-poesiarekin, gizakiaren arnas hartze moduko ahalmen organikoekin, eta, gehienez ere, on izan zitekeela hori soil-soilean linguisten utopia zoroak pozteko jostagarri bitxia. Bestalde, munduko barrutiko batzorde guztien ahalginen aurrean hizkuntza-unitateak zailtasun txiki bat jartzen du, kontuan hartzea merezi duena, zailtasun bakarra, zin egiten dizuet, era bereko bigarren zailtasuna gehiegizkoa bailitzateke. Hizkuntza-unitatea ezin eginezkoa da eta ezin izan daitekeena.

Batzordeak uste du hegoaldeko dialektoak, batzuk errespetagarriak iruditu arren, gure arbasoen jarauntzia diren neurrian (esker onak eman diezazkiegun nahitazko emate horregatik!) ez direla idatzizko hizkuntzen mailara helarazi; ez dutela jakin gramatika bat ontzen, ezta ortografia finkatzen ere; ez dutela izan lan azpimarragarririk, eta bere ohiko erabilera asmo oneko jendeak jarri duela, beste batzuen artean, arrazoi garrantzitsuenetan, Frantziako iparraldeko literatura nagusitasuna nabarmentzeko hegoaldekoaren aurrean. Ondo ulertzen da, beraz, nik une oro kopiatu egiten dudala. Kontu horiek ez dira asmatzen.

Eta hemen, harridurarekin, izuarekin esango nuke, besoak ere jausten dira, eta horrek aukera ematen dit azterketa egiteko hartu nuen moldean aldatzeko, arnasa, nekez bada ere, berritzen dudana bitartean, aldi piramidal honen gailurrean.

Zer! Antza denez, Hegoaldeko dialektoak ez dira idatzizko hizkuntzen mailara heldu, dela trobadoreen poesia zoragarrietan, dela halako epopeia erromatar ederretan; izan ere, haiei zor diegu, gutxienez, *Arioste* bera; ez gutxiago, patues jatorri eta politenean idatzitako maisulan xarmagarri eta xalokak; *Jean Doujatek*, languedocarren artean jakintsuenak, ordurako ezagutzen ziren hizkuntza guztietan idatzeko eta hitz egiteko gai zenak uste baitzuen horiek hiztegi batera biltzea merezi zuela! Eta nori eragiten dio zentralizazioaren mesedetan egindako probintzia-epai horrek? Hain juxtu ere, guri, aspaldiko hizkuntza eta poesia ikerle garenoi, barrutiko batzordearen sasi-gramatika harrigarria borondate osoz aldatuko genukeenoi, *Bellaudieroren passatens* bategatik, *Goudouliaren sounet* edo *cansou* bategatik, edota *La Monnoyeren Noël* bategatik.

Zer! Hegoaldeko dialektoek ez dute jakin gramatika bat ontzen, ezta ortografia finkatzen? Ez da, bada, nahiko garbi finkatuta *Pellasen* ortografia, *Sauvageserena*, *Doujat* on eta jakintsuarena? Bera-rengandik ikasi dut, ikasi ere, Cahors barrutiko batzordearen izena. Ez al dira eurak moldatuak izan, gustu handiko eta jakinduria indartsuko ahalmenez, eta moldatze horren lekuko ez al dira *Raynouarden* lan ederrak, Europa jakintsuak miresten dituenak! Eta gramatika moldatu baten falta al da Lot departamenduko patuesa narraz eraman duena, pasaporterik gabeko eskalearen antzera, jakintsukideen auzitegi zuzentzailearen aurrean! Emango al digu Jainkoak beste halakorik!

Zer! Hegoaldeko dialektoak (joan gaitezen urrutirago, ez baita beharrezkoa Cahors barrutiko ba-

tzordeak hain bihozgabe ukatu eta debekatu duen hizkuntza zoragarri honen onurez abusatzea) Eta zer! Ez al da Frantzian lan azpimarragarri bat bera ere patuesaz idatzi? Zer! Montpellier herria nahiko zekena izan da bere dohaiekin, sekula ez baito Cahors herriari hitzik esan *Rabelais*ek idatzitako kapitulu zoragarrienei buruz! Zer! Tolosako lorejokoen akademiak ere ez du eragin handirik izan Lot departamenduan hedatzeko *Clémence Isaure* entzutetsuaren izena eta bere musa languedocar ederrenak, lirioz, astoarrosaz eta sabiz lurrindutako musak! Zer! Hainbat agerraldi xarmagarri, besteak beste, *Cyrano*, *Regnard*, *Dancouri*, *Marivaux*, *Molièrenak*, *Molière* handiarenak, guztien agerraldi horiek zigortu behar dira gramatikariek behartutako interpretazio bortitzen menera, *Plautoren Panulus* lanaren gerrako agerraldien antzera, Cahors barrutiko batzordeak atsegin duelako geure jatorrizko frantsesa, geure ama hizkuntza maitagarria hartzea, erromatar erdi basatiek kartagoarrena hartzen zuten antzera! Ez al duzue uste patuesa ezabatzeko ideia-aren azpian zerbait badela, nik ez dakit zer, zerbait barre egitera eramaten gaituena, barre hauek, bistan da, negar egitea oztopatzen dutela!

Dena den, begira, zorionez, ze ezbeharretik libratu zareten! Cahors barrutiko batzordeak antolatatu izan balitu lehen mailako ikasketak antzinako Grezian, *Pisistrate* edo *Pericles* jakintsuen menpean (hau irudipen hutsa da); eta aldi haietan antolatatu izan balitu ikasketok egun Frantziako unibertsitateak egiten duen bezala, eta probintziako dialekto guztiak ezabatu izan balitu indarkeriaz, gure dialektoekin egin duen bezala, berezko erabaki baten ondoren, *ateak itxita hartua*, sinatua: *Atenas barrutiko batzordeak*, eta beheartsuago *Atenasen*, *Akademiaren errektore!* Ikaratu egiten naiz, gerta zitekeena zuei esateak ere ikara sortzen dit... Gaur egun ez genuen jakingo Homero zein izan zen ere!

Zer! Hegoaldeko patuesen ohiko erabileraren

asmo onak ziren arrazoi garrantzitsuenetakoak Frantziako iparraldeko probintzien nagusitasun literarioa markatzen zutenak hegoaldekoenaren gainetik!...

Nik hori ondo ikusten dut. Hori gizalege on baten jokaeretako bat da eta horretan hegoaldeak aurrea hartzen dio iparraldeari, eta nik hori ondotoxto dakit nire harrotasun puntuagatik. Hala ere, badakit kortesia beste gauza bat dela eta nik hori sarri gogoratuko dut *Rabelais*, *Montaigne* edo *Montesquieu* berrirakurtzen ditudala.

Nolanahi ere, akaso konturatzen al da Cahors barrutiko batzordea Frantzian languedoceraatik aparte beste patuesik ote denik, eta iparraldeak ez duela izan patuesa hitz egiteko zoritxarririk, hegoaldeak bezala, hori izango bailitzateke *kontuan harturik* formula horren ondorioz arrazoizkoena. Behar-beharrezkoa da jakinaraztea eta gogoraztea patuesa dela lurraldeko hizkuntza; guk patuesak ditugula, Cahorseko jendeak bezala; *La Fontaine* idazleak atsegin handiz hitz egiten zuen patuesez eta *La Monnoy*ek gogotsu; patues horiek, xarma eta indar gutxiagokoak badira ere, eurei hain kasu gutxi egiten dienarekin alderatuta, nahiz eta merke itxura izan, badute, gutxienez, udal hizkuntza ofizialaren besteko indarra eta xarma, eta halakoa aurpegiratzen diguten *bons esprits* horiek uste al dute bide horretatik aurrera egiten duela espirituak? Hain zuzen ere, patuesa oztopoa dela pentsaraztea literaturak aurrera egin dezan, ez al da benetako arrazoia iparraldeko idazleak *Montesquieu*, *Montaigne* eta *Rabelais* idazleen gainetik jarzeko !

Espiritu bikain horiek mantendu dutena zera da: "Oc" hizkuntzak gailendu izan balu, guk hitz egiten duguna beharbada askoz ere dotoreagoa izango zela, atseginagoa eta aberatsagoa; ez genuen izango *Racine*, *Molière* eta *Fénélon* baino maila gutxiagokoak, eurok erakargarriagoa ikusiko lukete gure hizkera gor-mutu mesprezagarria. Hori da hi-



tzaren eta estiloaren mekanismoak ezagutzen dituzten guztien iritzia, Cahors barrutiko batzordearena izan ezik, arrazoizkoa den moduan. Uler dagizue, ahal dela, erabaki honen gauzarik jasanezinena, hau da, Cahors barrutiko batzordeak, administrazioari dagokion lurraldean, bere argiak argi egiten dituen 362 tokietan, frantses arruntaren erabilera ezabatu balu, hori mila bider aberkoiagoa izango zen, mila bider txalogarriagoa, mila bider zentzuzkoagoa, eta horretarako aukera bazuen, unibertsitateko agiri eta eskubideei esker. Nik ez diot aholku hori ematen.

Ez, jauna, zin egiten dut! Ez dituzue patuesak ezabatuko, ez beste hizkuntza batik ere ez. Hizkuntzak ordua irizten zaienean hiltzen dira, erregeak, dinastiak, nazioak, mundua eta eguzkia bezala, barrutiko batzordeak bezala, baina gizakiak ezin du ezer egin horretan. Jainkoak nahi izan du batzuek *schibolett* esatea eta beste batzuek, ordea, *sibolet*, eta ez dago inongo barrutiko batzorderik, batzuk eta besteak behartuko dituenik hori horrela egin ez dezaten. Zuen ondoren luzaro hitz egingo da lan-guedoceraz, zuei hain gutxi gustatu arren, baita

euskaraz eta bretoieraz ere. Hizkuntza horiek, ez dakit jakingo duzun, bereiziak dira eta artez moldatutako gramatikak dituzte. Geroago ere, beste hizkuntza batzuk hitz egingo dira, unibertsitateak ezagutzen ez dituenak, eta zuek antzinako hizkuntzak beste ulertuko dituzunak, ez gehiago, ez gutxiago. Eta gero, ez da gehiago hitzik egingo, ez unibertsitatez, ez errektoretzaz, ezta barrutiko batzordeez ere. Hori da munduko gauzen betiko ibilbidea!

Ez jaunak, hizkuntza bat bera ere ez du hilko legeak eta arauak, ikastetxe baten aurrean, urkatuta, ahoa estalita, sasi-jakintsu baten idazmahaiaren gainean zikindutako kondenazioaren pankarta paparrean duela! Errektore batek, bi sasi-jakintsuk lagunduta ere, sekula ez du betikotasunera eramango, erregearen edota justiziaren izenean! Hizkuntzak biziagoak dira: ezin dira erail.

Utz iezazkiguzue patuesak geuri, mesedez, Cahorseko jaunak! Iezazkiguzue faborez! eurek ordainetan emango dizkigute, arian-arian bada ere, gaur eguneko frantses onaren lekukotza eta oinarria.



SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO

# *Gabon dut anuntzio* Bitoriano Gandiagaren liburuaz ohar batzuk<sup>1</sup>



*Gabon dut anuntzio* da Bitoriano Gandiagaren liburu *minor* bat (hots, liburu ‘txiki’ bat<sup>2</sup>), batez ere, *Elorri*, *Hiru gizon bakarka*, *Uda batez Madril*en edo *Denbora galdu alde* liburu handiekin erkatzen badugu –liburuok ezagutzen dituzuenok badakizue ez naizela handitasun fisikoaz ari, liburuon mamiaz eta tonuaz baizik–.

Horrek ez digu adierazten *Gabon dut anuntzio* liburua balio gitxikoa denik. Biblian ‘txikiak’ baliorik handienetakoak izaten ziren: Jose, Jakob-en hamabi semeetan hamaikagarrena izanik ere, Egip-

ton errege bilakatu zen, bere anaia nagusiak pobredo geratu ziren bitartean. David Joserren seme txikia zen eta Mesiasen leinua beragandik abiatu zen. Nazaretoko Jesus ere “Judako leinuetan txikienetako zen” Belenen jaio zen, Mendata antzeko herririka batean, eta halaz ere, Belenekin gertatu zen antzera, Orbelaunetik atera da XX. mendeko euskal idazlerik handienetakoa dugun gure (zuen) Bitoriano Gandiaga.

Jose semea, txikia izeteagatik, Jakobek etxolandedo geldiarazo zuen, anaia handiak munduan zehar

zabaldu ziren bitartean, eta Davidi ere, zazpi seme-tan zazpigarrena izateagatik, aitak ardien kargua emon zion, non horren baliagarria izango zitzaien habaila maneiatzen trebatu zen; eta Jesus bera, arotza edo egur-lanetan aritu zen hogeita hamar urtez, Bitorianoren osaba Eulogioren moduan.

Bitoriano Gandiagak *Gabon dut anuntzio* liburua baserri-inguruko jendeentzat idatzi zuen, hau da: gabon jaiak zirela, Oñatiko Arantzazu auzunean baserri kantatzen zebiltzan lagunentzako, eta, horrexegatik, jakinaren gainean ala jakin barik, liburu handia izateko xendran egokitu zuen. Azken buruan, idazle onarentzat ez da argitalpen xume edo txikirik, aita on batentzako balio txikiko seme-alabarik ez dagoen bezalaxe.

Beraz, *Gabon dut anuntzio* liburu txikia izanik ere, liburu handia da, eta, handitasun horren arrazoiak azaltzen jarraian saiaturako natzaizue.

Bat, haragizko Bitoriano Gandiaga argiago azaltzen zaigu liburu honetan, berorrek idatzi zituen beste liburuetan baino. Bitorianok, lehenik eta behin, baserritartzat aurkezten zuen bere burua, frailea edota gizon zein idazle eskolatua baino lehenago: “Baserritarra naiz izatez eta segitu ere baserritar egiten dut”.


Bi, herriko(i)a. Bitoriano Gandiaga ondoen zegoeneko ingurua herriko jendeen artean izan zen, bai errezatzerakoan<sup>3</sup>, bai lanean aritzerakoan, bai kartetan jokatzekoan, bai, aita Joxek bezalaxe, herri bertsoak kantatzerakoan ere. Bada alde guztiok askoz hobeto biltzen diren liburu honetan Bitorianoren beste liburuetan baino. Bitoriano liburu hau idatzeko, bertsolariak jazten da, herri poetak, hain zuzen, makila eta guzti: “... Ni...-dio olerkariak *Hiru gizon bakarka* liburuan- Herriarekin nago, / larrerik ez ezik, bordarik ez duen / hesparru gogorrean, / eta ezin dut lorik”.

Hiru, etnografoa. Euskal Herriarenganako maitasuna arlo askotan jorratu zuen Bitorianok: mendi

ibilaldietan eta literaturan, esaterako, eta etnografia lanetan ere bai: ikerketa mailan (demagun indusketan lanetan Arantzazuko Urbian, zeinetarako Bitorianok ez soilik zaletasuna, begi zorrotzak ere izan baitzuten<sup>4</sup>), ipuin biltetan (Araotz inguruko esatera, pasadizo ‘bildurgarrixak’ eta herri kontaketak grabatu eta idatziz, esaterako)<sup>5</sup>, Arantzazuko inguru giroa zaindu eta edertuz (milaka pago sartuz eta babestuz) eta herri ohiturak (Olentzeroa, kasu) ez soilik mantenduz, bertso ugariz indartu eta ederretsiz ere bai. Zein Bitorianoren liburuetan biltzen dira gauza horiek guztiok *Gabon dut anuntzio* liburuan baino hobeto?

Lau. Hala eta guztiz ere, Bitoriano beti Bitoriano. ‘Gandi’ ez zen, inoiz ere, pastelgile izan, aurpegi ematen dutenetakoa baizik, denbora galtzen ez dakitenetakoa. Bestalde, Bitoriano nabarmen makurtu zen, beti, pobreen eta zapalduen aldera: “Ni bajuekin. / Bajuenta delako, / nire herriko lurra”... eta *Gabon dut anuntzio* liburu txikian, arma nuklearraren kontra agertzen da behin eta berriz, eta klase-borroka proposatzen du, eredutzat nor eta Jesus txikia aukeratuz: “Jaio den Apurtxoak / badakar zer hau ere: / horren azalduz pobre, / klase-borrokan Bere / aukera du agertu: / non den ta noren alde / dagoen, alafede”. Ez, haatik, komunismo klasikoan ildotik, maitasun bidetik baizik: “Jaio den Aurtxoak / maitasun-legea du / aberats eta pobre / guztientzat ezarri; / epaitzekoan ere / arau hori izango / omen du neurri-lege.”

Bost. Maitasuna. Bitorianoren mezuak ez du zer ikusirik gezur eta ñoñokeriekin, are gutxiago gizarte arazoetatik ihes egitearekin. Alderantziz: “Badu aski zer pentsa / pentsa nahi duenak. / Pobre pasa zituzten / Belenen Gabonak”! Bitoriano Gandiaga guztiz zorrotza izan zen guztiak pobreen kontrako egoera ekonomikoan inplikatzeko orduan: “Gabonak datozela-ta / zelofan, paper de plata, / gastatu dugu soldata; / nahiz epetan, nahiz zorretan,



/ kapritxorik ez da falta” edota: “Aurretik milaka zorion, / atzetik nork egin jaramon? / ‘Hoa bai, heuk ikus, hor konpon!’ / ordea agurra nengion”. Horixe da, hain zuzen, *Gabon dut anuntzio* liburuan, gehienetan agertzen zaigun lelo salatzailea: “Alde batetik luxua eta / bestetik heldu- ezina, / jende humil eta pobreentzat / ez da gurutze arina; / pentsatzen ere ez gara jartzen, / ahaztu dugu examina, / non ote dugu justiziaren / egarri ta gose-mina?”.

Sei. Eta halaz ere, inori ez dakiola burutik ere joan, literatura sozialean askotan gertatzen den bezala, liburu hau panfletarioa, hots, literaturaren aldetik balio gutxikoa denik. Inundik inora ere ez! Olerkari onen goiarnasa nonahi argitzen zaigu *Gabon dut anuntzio* liburuan. Froga bezala, Bitorianok hainbeste maitatu zuen izaditik ekarritako usaina edo irudi batzuk aipatuko ditut: Gabonetako askoren fribolitate salatze, olerkariak zer eta xaboizko punpuilak

dakarzkigu gogora: “Xaboizko punpuilen egia / Gabongo agurren erdia; / Haizezko mamia barruko, / kanpoko enbustekeria”. Gabonetan plastikozko engainuetan zein erraz jausten garen adierazteko, Bitorianok bonbilan erretzen diren eltxoei begira jartzen gaitu: “Dirdir zer ikusi / hartara goazi / milaka anuntzio / jaso eta irentsi: / eltxoak garretan / kiskalita jausi, / guztiak ohi du / zentzu ona hautsi”... eta luzatu ez gaitezen, buka dezagun ahalpaldi eder honekin, non olerkariak gaurko munduaren presa eta nahasmena inurritegi batekin partekatzen dituen: “Bakoitza bere ardurak edo / zeregina afandua, / jo batera ta jo bestera hor / ehun arazotan nahastua. / Inurritegi aztortua? / Halaxe giza mundua”.

Zazpi. Ez dugu zertan azkarrak izan behar oharztzeko *Gabon dut anuntzio* liburua bigarren argitalpen honek dakarkigun abantaila bat musika dela: bai musika idazkera gardena eta dotorea, bai hiru CDak abesti eta musikaren laguntzarekin, baita kontu guztion gaintik, Bitoriano Gandiagaren baldintzarik gabeko jarraitzaileak garenontzako beronek errezitaturiko pasarteak. Musikagileak, bestalde, ez dira nolana hikoak: Tomas Aragües, Joan Luis Atxega, Gontzal Mendibil, eta, oroz gain, Pello Zabala, izarren jira-biren soinuaz ere jakitun duguna.

Zortzi. *Gabon dut anuntzio*ren bigarren argitaraldi honek badakarkigu beste dotorezia bat ere: Xabier Egañaren marrazki koloretuak. Editoreak diosku “Xabier Egaña dela Gandiagaren ‘ikasle’ eta interprete grafiko adituena”. Ez dut neuk ezertxo ere zuzenduko, bai baieztatu, lekukoa bainaiz, behin baino gehiagotan, Xabier Egaña dela Bitoriano Gandiagaren miresle sutsuenetarikoa, kontenplatibo baten an-

tzekoa, gainera: “Lur. Lurra. Nire lurra... argi baino argiago dut Bitorianok erakutsi zidala sentitzen, maitatzen gizakiengandik horren hurbil, horren barruko zaigun lurra”. Elkarrekiko konplizidade hori agerian geratzen zaigu X. Egañaren marrazkien trazu zein koloreetan, barrutik sortzen baitzaie su eta beroa, liburuko orrietan Xabierrek biztu digun su baten garren dirdirak balitzaizkigu bezala.

Bederatzi. Bitoriano Gandiaga ez zen gai izaten idatzi zituen bertso ederrak ondo gordetzeko: “Badakit –aitortzen digu– borradoreak praka-poltsikoetan erabiltzen nituena, eta labanderiatik pasatu ondoren, paper-pelotatxo askaezin eginda berreskuratzen nituena”. Eskerrak, beraz, Bitoriano Gandiagaren bertsoak bildu eta gorde zituztenei, kasu honetan Pello Zabalarri eta Dionisio Arrutiri... beraiek gabe liburu hau ezerezean geratuko zitzaigun eta.

Hamar, lehen argitalpenean agerturiko bertsoekin nahiko ez bailitzaigu, bigarren argitalpenaren editoreak “olerki eta bertso gehigarriak” ere eskaintzen dizkigu edizio berri honetan. Guztira hirurogei poema, “beste nonbait argitaratuak nahiz poetaren testu argitaragabeen bildumatik jasoak”. Beraz ez dugu esku artean Olentzeroren opari makala!

Hamaika, frantziskotarrek liburu hau argitaratu zutenetik hona hogeita bost urte igaro dira. Hala eta guzti ere, *Gabon dut anuntzio* liburuak ez du gaurkotasanik bat ere galdu. Irakurri eta badirudi gaurko euskal egunkari bat irakurtzen ari garela. Krisia gora, krisia behera: “Krisialdia, langabezia, / erreallitate gorri, / alferrikako gastuak ere / gehi iezazkiozu horri”. Ba bai, badirudi pobreen egoera, dela herriena, dela gizakiena, betikoa dugula: “Bascongadas deritzan eremuaren barruan, gure aita zenak esaten zuen moduan, jende baju talde batek osatzen du Euskal Herria”. Ez da hori Bitorianok, baserritarren ironiaz edota tristuraz, utzi digun bigarren mailako irakatsia. Ez dezagun inoiz galdu, zeren eta krisi-irteeraren bila, gu ere, gaur egunean, nahiko

galduta baikaude: “Izarra galdu zaigu / Belengo Bidean, / guztion kaltean; / jauregira jo dugu / hala-beharrean: / hain gaude egon ere / uste okerrean, / hantxe behar duela / inon egotekotan; / Jesus haurrik ez dago / Herodesenean. / Handiusteak gaitu / eraman hortara... / Ez, handiustetik ez zaigu etorriko salbazio edo askatasuna.

Hamabi. Nik uste dut Olentzeroren ohitura zaharra galtzen ari dela gatz eta indarra. Bigundu egin dugu Olentzero, hiritartu, otzandu, ekialdeko erregeen antzeko bihurtu ere bai. Autonomia heldu zaio omen. Baina Euskal Herriaren egoera ez da geure gauzak txantxatatzat hartzeko modukoa. “Euskal kantuak tristeak direla” aurpegiratu zioten behin Bitorianori... eta berak erantzun: ... “bai, baina egiazkoak”. Ba horixe... Ez naiz luzatuko gai horretan. Soil-soilik proposamen bat: berreskura dezagun mendiko Olentzero. Olentzero errebindikatzaille (badugu zer errebindikatu) eta euskalduna (badugu nola edo zertarako errebindikatu), bestela globalizatu eta erderatuko digute Olentzero buru handia eta Bitoriano Gandiagaren olerkiak eta abestiak ahaztuko ditugu, behin betiko. Hori gerta ez dadin, proposamen bat: Zergatik ez doguz *Gabon dut anuntzio* liburuako abestiak berreskuratzen... aurtan bat, datorren urtean beste bat, eta datorrenean beste bat, eta beste bat? Baditugu ehundik gora abesti herrikoi eta errotuak, oso ederrak, musika eta guzti. Hori zuok meatarrok egin behar duzue, lehen-lehenik, eta guk guztiok jarraitu eta zabaldu. Ondo eginez gero, ikusiko duzue nola Euskal Herriko txoko guztietatik Gandiagaren kantak kopiatuko dizkizueten, baita etorriko ere *Gabon dut anuntzio* liburuaren bila.

Hamahiru. *Eztok amairu* eta San Martintxo moduan ni ere banoa: “Oilarrak yotzen du munduan, aingeruak ederrak zeruan, eta neure arima izten däusat Andra Mariaren altzoan” (baita zuena ere, zuek horrelaxe nahi izanez gero).

## OHARRAK

<sup>1</sup> Testu hau, Mendatan, azaroaren 19an, *Gabon dut anuntzio* liburuaren bigarren argitalpenaren aurkezpenean irakurri zen.

<sup>2</sup> Gaztelaniaz “un libro menor” esaten da. ‘Menor’ horren euskal ordaina ‘txikia’ da I. Sarasolaren Zehazki hiztegiaren arabera eta ‘minor’ (eskala minorrean, esaterako) Elhuyar hiztegiaren arabera.

<sup>3</sup>AZURMENDI, J., “Epilogo”, in *Hiru gizon bakarka*, Elkar, Donostia, 1991, 209-210. or.: “Erroman erabaki zenean, otoitzak hizkuntza bulgarrean egin zitezkeela, Arantzazun (hots, santutegian) erabaki zen hizkuntza bulgarra fraideen koruan espainola

zela eta korupean, jendearentzat, euskara”. Kinka larri horretan, “asko sendituz, Gandiaga korupera joan zen”.

<sup>4</sup> URTEAGA, M., *Gara*, 01.08.27, 29. or. ZABALA, P., *Euskaldunon Egunkarian*, 31/05/01: “(Lurrarekiko) Harreman horren barruan, Arantzazu oso modu berezian kokatuta ikusten zuen, eta inguruan aztarnak bilatu nahi zituen. Horretarako usnamen propio bat zuen. Pendizen formei erreparatu eta hala esaten zien Arkeolanekeoi: ‘Koxka hori ez da naturala’. Eta hark esandako tokian beti zerbait agertzen zen”.

<sup>5</sup> GANDIAGA, B., “Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz”, *Euskera*, I, 1956, 206-231. or.





**JUAN GOROSTIDI BERRONDO.** *Lau kantari. Beñat Achiary, Mikel Laboa, Imanol Larzabal, Ruper Ordorika.* Pamie-la, 190 or.

*Geure historiaren zaititxo bat*

Juan Gorostidik musika eta psikologia ikasketak eginak daukaz eta musikazale amorratua dala irakurri dot. Esku artean dogun hau berak idatzitako lehenengo liburua da, liburu interesgarri eta sakona, lau musikariren gaineko gogoeta. Imanol Larzabal hil zanean hasi zan liburua idazten, kantariaren ideologiaz egiten zalako berba eta ez berak egindako lanaz. Gero Mikel Laboa be hil zan, eta horixe izan eban liburua josten hasteko hurrengo akuilua.

Liburuari lehenengoz erreparatzean, lau kantari bakarrrik zergaitik aukeratu dituan pentsau geinke, baina hautaketa hori ez da oinarri bakoa. Idazlearentzat lau horreek dira euskal kantagintzearen zutabeak, Euskal Herriaren “urrezko belaualdiko” ordezkariak musikearen arloan, bakotxa bere ezaugarri eta berezitasunakaz, baina dan-danek oinarri bera dabela: tradizionotik edan dabe. Eta herrikoitasuna eta abangoardia uztartu dabez.

Gorostidik gure kantagintzearen ezaugarriak jorratu dauz lehenengo eta behin: “...gure kantagintzan izan direla ezaugarri batzuk inguruetaoetatik bereizten gaituztenak. Bata bertso, koplak eta balada zaharrei emandako lekua. Bestea kantariaren artean gehiago izan direla poesia gisa egindako hitzak musikatzerara jo dutenak, kantu-letra gisa pentsatuak egindakora baino. Euskal kantagintza izan dela lehenengo eta gaurko poesiak izan dituen zabalte bide eraginkorrena, alegia. Eta amaitutzat eman litekeen mugimendu haren hedaturari esker, gure poetek eta zenbait poemak bestela imajina ezinezko oihartzuna lortu zutela”. 60ko hamarkadan euskal kantu herrikoia indartu zan, eta kantari horreei esker aurreko mendeetatik etorren materiala ezaguna bihurtu zan. Baina 70eko hamarkadatik aurrera poetengana jo eban gehienek, eta modu horretan, euskal poesiak (poesia publiko urriko esparrua izaten dan arren) bultzada handia lortu eban: Mirande, Atxaga, Sarrionandia... Baina gure mugetatik kanpo be jo eban kantariok, esaterako Bertold Brechtengana.

Honetara laburtzen dauz Gorostidik kantariaren ezaugarriak:

–Imanol Larzabalek klasikotasuna ordezkatzan dau. Gorostidiren berbetan, “*Lartzabalen lorpen handiena kantu herrikoia xume horien melodien indarra eta lirikotasuna azaleratzean datza*”. Eta bere kantu guztietan malenkonía da nagusi. Gainera, kantariak amaierako urteetan gehiago grabau eban gaztelaniaz euskaraz baino, arrazoia hurrengo hau izanda: “*Aukeratu dudán mundu poetikoarekin askoz identifikatuago sentitzen naiz. Agian, euskaraz ez dudelako interesatzen zaizkidan testuak. Dena dela, ez dut pentsatzen euskara uztea, nire bizitza delako eta benetan maite dudalako*”.

–Laboa abangoardia da, esperimentalismoa, Europa osoan parekorik ez dauana. Gorostidik *mediuma* dala esaten dau, “*bere ezarririk ateratzeko orduan, kantua bera Laboa bihurtu eta bere bitartez beste zerbait da*”. Idazlearen

iritziz Laboak berben sonoridadearen mugetako esplorazioan jardun eban, jolas baten antzera. Kantariak sortutako lanak intimidadean entzuteko pentsautu dagoz.

–Ordorikak rocka eta tradizioa lotu ebazan ikutu moderno bategaz eta kalidade handiagaz. Eta horretarako garrantzi handia euki eban berak aukeratu ebazan letrak, Atxagaren *Etiopia* laneko testuak, hain zuzen be. Egilearen esanetan, “*Interpretazioa da berea, Imanolena bezala, baino honen klasizismo solemnetik urrunen dagoen lekua aukeratzu, erromeriara atera gaitu berak*”.

–Eta Achiary kasu berezia da, herri-kantari peto-pettoa, Zuberoako inprobisatzaileen tradizioa errebindikatzen dauana. Idazlearen berbetan, erradikala: “*Achiaryk libre egiten du hegan kantuan*”. Bere lanak ez dagoz grabaketetarako prestatuta, zuzenekorako baino. Eta, hala eta guztiz be, kantariaren lana ezezaguna da, Europa osoan kantaririk onenakaz diskoak grabau dituan arren.

Egileak berak dinoenez, gu konturatu ez arren, musikeak gu guztion bizitzako txoko guztiak harrapautu daukaz, txoko publiko zein intimoak. Askotan urrunetik ikusten dogun euskal musika horrek guk pentsetan dogun lekua baino garrantzitsuagoa dauka geure bizimoduan. Nik neuk aitortu behar dot liburuan aitatzen diranetakoa baten kanta ospetsua dala nire kantarik gogokoena, nire bizimoduko hainbat eta hainbat bizipeni lotuta dagoana eta gauetan alabak lokartzeko erabiltzen dodana.

*Arantza Etxebarria Iturrate*

LIBURUAK

**JOSEBA SARRIONANDIA, *Moroak gara behelaino artean?*** Pamiela, Iruñea, 2010.

Joseba Sarrionandiaren lan honek Euskadi literatura sarien irabazlea izan da saiakera sailean eta ez du meriturik falta halako aitopena lortzeko. Izan ere, anbizio handiko lana da, liburuaren mardulak berak erakusten duenez: zazpirehun orrialde luze, horietatik bostehun eta berrogeita bi testuaren gorputzari dagozkio eta hortik amaierara bitartekoak oharrei (mila hirurehun eta larogeita hamar ohar guztira). Azaletik ikusita, edonor intimidatzeko moduko liburua dela emango luke. Eta hala ere, irakurri dutenek ez dute dudarik egingo Sarrionandiaren lana *reader friendly* dela, alegia, irakurlea adiskide duten horietakoa, idazleak bere solaskide egiten baitu; noiz istorio miresgarri itxurako historia aspaldi ahaztu baina betiko gogoratzea merezi dutenak kontatuz; noiz herri, kultura eta hizkuntza hurbil bezain disezagunen berri emanez, noiz euskaldunek herri, kultura eta hizkuntza horiekin izandako harreman ezustekoak azaleratuz; orain botere egiturei buruzko hausnarketa eraginez; gero herri, gizarte talde eta gizabanako orori adorea emanez halabeharrezko menpekotasunak astindu eta gizakiaren halabehar bakarra, askatasuna alegia, onar dezan, “inork ere ez digulako askatasunaren kondena kommutatu, ez leundu, ez ondo esplikatu oraindik” (542).

Gaitza litzateke horrenbeste gai, hizkuntz erregistro eta diskurso mota biltzen dituen liburua esaldi bakar batez laburbiltzea baina bat aukeratu behar izatekotan aipaturiko hori, liburua ixten duen esaldi horixe bera hain zuzen ere, ez da desegokiena. Liburuaren batasuna azaltzeko ahaleginean, Sarrionandiak honela aurkeztu ditu bere lanaren ildo nagusiak: “Lauspabost liburutan aurkez nezakeen: xelha gramatika egin zuen fraidearen biografia, Arriafeko errepublika artegaren historia, inperialismoaren kritika entsegua, amazigeraren edestia

edota Espainiaren eta Frantziaren mende euskaldunok egin beharreko protesta” (14). Artean, aipaturikoeekin loturiko beste gairen bat ere garatu da: euskaldunen egitekoa Marruekoson kolonizazio prozesuan, edo herri txikien hizkuntza eta literaturaren egoera, batez ere amazigerarena eta euskararena, iraganean, orainean eta etorkizunean. Eta gai horien guztien muinean, agerian nahiz izkutuian, etengabeko hari berbera, arestian aipaturiko askatasun giraren ezinbesteko baldintza, dominazio egiturak gainditzeko Ariadnaren haria: “Hau boterearen gramatika, logika eta erretorika arakatzea besterik ez da” (15), alegia ohizko politikaren tribulitatetik haragoko *trivium* eguneratua, edota etorkizuneko arte liberalen zirriborroa, askatasunez jokatzeko gizaki libre orok behar litzakeen jarrerren eskaintza, “esperantzaren gramatika” (539-540).

Dominazio egiturek erabili ohi duten menderatze baliabideen artean identitate definizioak daude. Definizio horiek identitatedun eta bazterrekoen arteko mugak ezartzen dituzte: gure artekoa edota gu bezalakoa ez dena *Beste* da. Etnia, arraza, erlijio eta hizkuntzaren ikuspegitik Beste horrek merezi izan dituen izenatariko bat *moroa* da. Sarrionandiak gogora dakarrenez, berez ez dago mororik, inork ez baitu berba hori erabiltzen bere identitate aldarrikatzeko, bere burua eta bere kideena definitzeko. Euren alteritatea azpimarratzeko asmoz *moro* deitu izan ditugunak berez jatorri, hizkuntza eta kultura ezberdinetako herritarrak dira. “Moro hitzaren zakuto triste” (17) horretan sartu ohi direnen artean badira behinola Afrikako iparraldea menderatu zuten arabiarrek, baina lehendik ingurune hartan bertan bizi ziren herri nomadak ere bai, amazigera hizkuntzadunak. Azken horiek moroen arteko menderatuak edo minorizatuak izanik, esku artean dugun liburuan berebiziko arreta merezi dute, batez ere euren hizkuntzak eta literaturak. Esan beharrik ez dago idazleak, bera ere kultura minorizatu bateko kidea

den heinean, enpatia nabarmena erakutsi duela herri horrekiko eta hortaz nekez egingo diola uko amazigeradunen eta euskaldunen arteko analogiak sortzeko joerari. Are gehiago amazigeraren gramatika eta hiztegia lehen aldiz deskribatu zuena Pedro Hilarion Sarrionandia frantziskotar euskalduna izan zela jakin duenean.

Baina Europako estatu kolonizatzaileen ikuspegiak Afrika iparraldeko herri guztiak moroen “zakuto triste” eta zehazgabe horretan sartzen dituen heinean, denak modu berean menderatzeko ahalegina egiten duen heinean, menderatzaileek morotzat dituzten guztiekiko enpatia ere agerikoa da. Unamunok XX. mende hasieran idatzitako poema batean “euskaldunek espainolotasunaren errekan urtu beste irtenbiderik ez zutela defenditu ondoren, orain, [...], euskaldunak eta arriafik konparatzen ditu, euskaldunak moro desterraturatzat aurkeztuz” (137). Bilboko idazlearen poema horretako bertsolero batek hala dio: “¿Somos moros en brumas?” (581). Bertsolero horren euskaratzeak Sarrionandiaren azken liburuari titulu bitxi hori emateko ez ezik, liburu berori goitik behera *leitmotiv* metaforiko gisa zeharkatzeko zeregina ere badu. Beraz, euskaldunen alteritatea azpimarratzeko edota estatu handien mugetan harrapatu herri txiki guztiena ere bai eta, hedapenez, Besteaz izaterako beharturiko ororena. Eta esandakoarekin batera, Unamunoren alderdi ia ezezagun bat gogora ekarri eta hari buruzko ikuspegi oso eta konplexuagoa irudikatzea lortu du.

Lehenengo *leitmotiv* horrekin batera beste bat ere ageri da, hau ere metaforikoa: “historia hondakin pila bat da. Perla batzuk baizik ezin dira atera zabortegitik, Hanna Arendten metafora ekarriz, murgiltzen eta saiatzen den igerilariak itsaso sakonetik azaleratzen dituenak bezala. Oraina betetzeko eta etorkizunari zentzua emateko” (506). Sarrionandia bera dugu igerilari hori, liburu honen bitartez memoria ahalegin ikaragarria egin baitu. Moro deituriko



horien berri emateko, haien artean ibilitako euskaldun ahaztuak gogora ekartzeko ikerketa lan sakona egin behar izan du idazleak, dokumentazio ugari eta zehatza esku artean erabilia: historiaren zabortegian buru belarri sartu ostean aurkituriko perla horiek eskaini dizkiugu irakurleoi. Eta eskaini ere diskurtso akademikoak egin ohi duen baino era adiskidetsuagoan, zehatzasunari uko egin gabe baina aldi berean irakurlearen gozagarri.

*Leitmotiv* horiek ugari izan daitezkeen arren –eta irakurle bakoitzak bereak identifikatuko dituen arren–, hirugarren eta azkena aipatuko dugu: “Idatzita dago. Baina ez dizut *mektub* [idatzita zegoen] esango, moroek esaten duten zentzuarekin. Idatzitakoa ere emenda daiteke. Idatz dezakezu gainean. Dena egiteko dago oraindik” (15). Halaberhar itxuraz mozorroturiko dominazio egiturak salatu ditu idazleak, bereziki pentsamendu bakarraren jarduerak. Salaketa horrek iraganeko estatuak ez ezik oraineko eta etorkizuneko indar globalak ere ditu jomuga. Nekez aurkitu daiteke tresna egokiagorik helburu horretarako hausnarketa kritikoa baino. Eta horretan ere esku artean dugun liburuaren ahalegina mira egitekoa da aipaturiko pentsalariren kopuru eta kalitateari dagokionez. Izan ere, pentsalari horiek toki eta garai anitzetakoak dira, bai eta jakintza alor ugariatakoak ere. XX. mendeko batzuk soilik izendatzekotan, gorago aipaturiko Hanna Arendtekin batera honako hauek ere ageri dira: Edward Said, Max Weber, Pierre Bourdieu, Gayatri Spivak, Frantz Fanon, Michel Foucault, Emile Durkheim, Noam Chomsky, Alain Badiou, Gilles Deleuze eta Felix Guattari, Antonio Gramsci, Umberto Eco, Gaston Bachelard, Norbert Elias, besteak beste. Ikertzaile eta idazle euskaldunak ere ezin ahaztu: Koldo Mitxelena, Luis Villasante, Antonio Zavala, Joxe Azurmendi edo Beñat Oihartzabal, ezagunenak aipatzearren. Era batera edo bestera, horiek guztiak eta aipatu gabe utzitakoak Sarrionandiaren bidelagun dira batak bestearen errespetuan oinarri-

turiko elkartasun egoera lortzeko asmoan, indarkeria orori uko eginda. Literatura balio etikoaren eskutik inon ageri bada, hementxe ageri da.

Moroak gara baina mororik ez dago, historia zabortegia da baina perlak ditu, dena dago idatzita baina dena dago idatzeko. Garaturiko ildo tematiko bakoitzari liburu bana eskaini izan balie, “akademikoagoa litzateke dena, elementu diskordanteak kanpoan gertuko lirateke, ordea. Eta nik diskordantziei buruz idatzi nahi izan dut. Diskordantziek elkarri argi apur bat emateko, konstelazioetan izar batek bestea argitzen duen moduan...” (14). Gaien eremuak ez ezik, diskurtso mailako diskordantziak ere agerikoak dira, noiz dokumentazioak eskatzen duen objektibotasunera jotzen baitu, noiz hausnarketa kritikora, noiz ironiara, eta sarritan ahots lirikoak gogoko duen hizkuntza metaforikora, diskordantziak azaltzeko erabili duen irudian edota gorago nabarmendu ditugun *leitmotiv* horietan, esate baterako. Saiakera generorako aukera egokia, dena dela. Alde honetatik ere, ambizio handiko lana, eta lorpena ere maila berekoa.

Egitasmo erraldoi honek edizio lana ere sekulakoa eskatu behar izan du. Inigo Aranbarriri egokitu zaio zeregin hori, berau ere idazlea. Errata txiki batzuk gelditu diren arren, oharretan batez ere, liburuaren neurriari begira oso gutxi direla eta irakurketa ez dutela oztapatzen esan beharra dago. Editoreak eta argitaletxeak lan eskerga egin dute testua zaintzen ez ezik, baliabide grafiko ugaz hornitzen ere. Lanaren luzera ikusita, liburuaren edizio berrietan pertsona eta toki izenen indizeak txertatzea gomendagarria litzateke unean uneko kontsultak errazte aldera.

*Josu Bijueska*

